

ttipi-ttapa



MODA gehigarria / 28



Euskararen Eguna ospatuko dute urriaren 12an Zubietan / 22



Umore Ona Elkarteko atalen eguna urriaren 13an Goizuetan / 36

Anizen asteburu honetan eta Gartzainen ondokoan bestak dituzte / 42-43

SINADURAK




FERNANDO ANBUSTEGI GONI / 3



AITOR ARATZENA ALBIZU / 3



MAITANE MARITORENA AZKARATE / 4



MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA / 4



ZOKKETA / 60



Karlos AGIRRE ZUBITUR | Leitzako Aurrera Elkarteko lehendakaria

«AURRERA ELKARTEAREN EGOERA OSO ONA DA ETA EZIN DUGU HORI GALDU»

Gutxi bezala ezagutzen du Agirrek Aurrera Elkarteko martxa. Ofizialki 1972an sortu zen elkarte eta geroztik hainbat aldiz izan da lehendakari, 20 urtez baino

gehiagoz. Orain arteko bideaz, gaur egungo egoeraz eta urriaren 5ean ospatuko duten

Aurrera Eguna solas egin du TTIPI-TTAPAREKIN. / 10

Tabakotik ihesi

Erretzaile izandako eskualdeko zortzi lagunen testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. / 7

Etxeak aldatzen ditugu...
Gauzak aldatzen ditugu

Nasuvinsa
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK



Etxebizitza, hirigintza
eta lurraldeko garapen
jasangarria

NORI

- > Eskualdeko pertsona fisikoak
- > Bizilagunen komunitateak
- > Alokairuko sustatzaileak

GURE ESKAINTZA

- > Etxebizitza eta eraikuntzen zaharberritzea
- > Inguratzaile termikoen hobekuntza
- > Oztoko arkitektonikoak ezabatzea

NOLA

- > Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak %50 erainokoak
- > Elkarlana eta laguntza egokituta

BAITA...

- Etxebizitza publikoen sustapena
- Alokairu Poltsa
- Hirigintza
- Garapen jasangarria
- Lurzoru industrial

BAZTAN-BIDASOA / ESKUALDE BULEGOA

INFORMAZIO GEHIAGO
www.vivienda.navarra.es



DONEZTEBE/SANTESTEBAN
Mercaderes 6 – 31740 Doneztebe/Santesteban 948.456.103
baztan-bidasoa@nasuvinsa.es



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

berako agenda

.eus

f t

Urria

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio
gehiago: 948 012 012 telefonon
edo www.berakoagenda.eus

BERAKOUDALA

05 | ZIRKUA
LARUNBATA | EMPORTATS
(LA TRÓCOLA)

19:00 Kultur etxean
Sarrera 7 € (sarrerak salgai ordu erdi
lehenago)
Argibide gehiago: www.latrocola.com
Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea
Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua eta
Berako Udala

11 | HAURRENTZAKO
ORTZIRALEA | IPUIN KONTALARIA
1, 2, 3... Ubuntu

Ipuin kontalaria Izaskun Mujika
Adina 5-9 urte
18:00 Herri Liburutegian

18 | HAURRENTZAKO
ORTZIRALEA | IPUIN KONTALARIA
Zuhaitzan hazitako ipuinak

Ipuin kontalaria Izaskun Mujika
Adina 4-7 urte
18:00 Herri Liburutegian

19 | KONTZERTUA
LARUNBATA | MIRUA
ABESBATZA

19:30 Kultur etxea

20 | MARGO
IGANDEA | LEHIAKETA
AIRE ZABALEAN

09:00-14:30 Lehiaketa
18:00 Sari banaketa

22 | 2019KO UDA IKASTAROK
ASTEARTEA | NAFARROAKO
UNIBERTSITATE PUBLIKOA
ZENTZUGABERIAK
JARDUNBIDE EGOKIETARA.
ONDARE KULTURALEAN
EGINDAKO ESKU-HARTZEAK

SOLASALDIA
PAGOAGAREN
KUTXA
(ALICIA ANTZO VILLANUEVA)

19:00 Beralandeta
Hizkuntza Gaztelania
Antolatzailea: Nafarroako Unibertsitate
Publikoa
Laguntzailea: Berako Udala

26 | XXXIX.
LARUNBATA | LIZUNIAGAKO
IGOERA

Adina 14 urtetik goitikontzat
15:30 Haurren krosa
17:00 Lizuniagako igoera
Distantzia 4,9 Km
Izen-ematea
Aitzinetik: 5 €
pb-organisation.com
guretxokoaelkarte@gmail.com
626 30 94 38
Egunean bertan: 10 €
Antolatzailea Gure Txokoa elkarte

26 | XIII.
LARUNBATA | BARAZKI-OPIL
LEHIAKETA

18:30 Aitzateko pilotalekuan

27 | LURRAREN
IGANDEA | EGUNA

Egunean zehar Eskulangileen azoka,
barazkien erakusketa, gasna eta sagardo
lehiaketa, kalejira, argazki erakusketa,
bertsolaria, dantzariak, berben...



NIRE TXANDA

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

Maitasuna

Maitasuna eta sufrimendua maiz elkarren eskutik ibiltzen dira. Batetik bertzerako tartea arras laburra, laburregia agian, izan ohi da. Xalbadorrek erakutsi zigun, gerora hainbatek kantatu duten bertso honen bidez: «aunitz maite duenak aunitz sufritzen du». Arrazoia! Pentsatzen nuen nirekiko kantatzen nuen ia aldiro. Bat egiten nuen esaldiarekin, maitasunak batzuetan sufritzea baitakar berarekin inplizituki, ez beti. Sinpleegia izan daiteke pentsatzea, baina, merezi al du maitatzeak gero maitasun hori sufrimendua bilaka badaiteke? Ez dakit erantzuna pentsatzeko astirik hartu duzuen edo ez. Nik argi dut: bai, maitatzeak merezi du. Azken aldian, zoritxarrez eta zorionez, sufrimendu eta maitasun aunitz ikusi eta sentitu dut inguruan. Momentu latzak, benetan, baina baita ederrak ere; jaso eta emandako egiazko maitasun adierazpen aunitz izan dira. Maitasunak sufrimendua gainditu du eta hala behar du. Maitatu dezagun orain, hemen, egunero, merezi du. Ez utzi biharko. Has nadin, beraz. Nahi duenak har beza nire muxu eta besarkadarik goxoen!

«MAITATU
DEZAGUN ORAIN,
HEMEN, EGUNERO,
MEREZI DU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Demokrazia bestaz besta

Hauteskundeak demokraziaren besta direla erran zuen norbaitek. Hala balira, ongi parrandazaleak gabiltza azken urteotan! Azaroaren 10ekoei begira, txupinazoaren ondotik hasiak dira erraldoiak, buruhandiak, betizuak eta zezensuzkoak botoa eskatzen, programan auresku eta sardanarentzat lekua egiteko asmorik gabe. *Pobre de mi*.

NABARMENTZEKOAK



PAKITA
OTXOTORENA BORGES
101 URTE



JON
BARBERENA IBARRA
HILBERRIA

1918ko irailaren 21ean sortu zen Almandozko Pakita Otxotorena. 101 urte beranduago Almandozen segitzen du eta urtebetetzea semeekin, bilobekin eta birbilibekin ospatu ahal izan du.

Irailaren 12an hil zen Elizondoko bertsolari eta idazlea. Lanbidez irakaslea zen arren, hamaika alorretan ibilia zen, eta tartean, TTIPI-TTAPA aldizkariko kolaboratzailea zen.

ATZERA BEGIRA



2009-10-01 · TTIPI-TTAPA · 503 zk.

Belarrak aizkora utzi zueneko

Duela hamar urte utzi zuen aizkora Luismari Belarra doneztebarrak, «entrenatzeko denborarik ez eta familiarekin egoteko denbora gehiago nahi nuelako». Hasiera indartsua egin zuen; 1996an hasi eta hurrengo urtean bi txapel jantzi baitzituen. Baina Maila Nagusian ari zela, lau urtez aritu gabe egon zen: «Frantziara joan nintzen mendira lanera eta dena batera ezin nuen». 2003an agertu zen berriz plazetan: «hurbilago hasi nintzen lanean, eta afizioa betidanik izan dudanez...». Halere, «lana dela-eta beti gaizki ibili naiz, ezin ailegatuz, eta horregatik sufritu egin dut», aitortu zuen. Baina momentu pozgarriez ere mintzatu zen. Tartean, «Arriarekin egindako apustua irabazi nueneko» aipatu zuen. «Gustura gelditu nintzen».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eu

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterri
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oleiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Iñaxo Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebrea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 38€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Iparr Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€





KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

Kasu! Arrisku handiko armak: hizkuntzak

Urriaren 12a egutegian gorritz markatutako eguna dugu Hego Euskal Herrian. Egutegiko gorriak, ordea, odolaren kolorea erakusten digu bestarena baino gehiago. Ameriketako jatorrizko herrien genozidioaren hasmenta adierazten du urriaren 12ak, kolonizazioaren hasmenta, ehunka herri indigena suntsitu, milioika herritar hil, eta ehunka hizkuntza desagerrarazi zituen dataren hasmenta.

1492.urtean Ameriketa *deskubritu* omen zuen Kristobal Kolonek, nahiz Ameriketa hor zegoen aspalditik. Existitzen dena ez da deskubritzen, badagoela jakin baizik. Hortaz, Kolonek ez zuen deus *deskubritu*. Kolonek Ameriketa kolonizatu egin zuen. Deskubritu zutena hizkuntzek herri batean duten garrantzia izan zen, herri bat menperatzeko lehenbiziko baldintzetako bat, jatorrizko hizkuntza azpiratzea zela ikasi zuten, Ameriketa urrunean eta Euskal Herri hurbilean. Horretarako, jatorrizko hizkuntza galtze bidean paratzeko, hizkuntza ordezkapena egitea ezinbertzekoa da, eta zapaltzailearen hizkuntza beharrezko bihurtu.

Haatik, hizkuntzak ez dira objektuak, galdutakoan ez dira objektu galduen egoitzan bilatzen ahal, ez dira erosten ahal; hizkuntza bat galtzen delarik, egundaino berreskuratuko ez

den mundu ikuskera oso bat galtzen da. Hizkuntza bat galtzen delarik, egundaino berreskuratuko ez den identitate bat galtzen da. Hizkuntza bat hiltzen d(ut)elarik, ez da hiztuna isiltzen, herri oso

«HIZKUNTZA BAT HILTZEN D(UT)ELARIK, HERRI OSO BAT MUTUTZEN DA»

bat mututzen da.

Gaur egun munduan 6.000 hizkuntza inguru daude, eta bi asteetarik behin bat galtzen da. Atera kontuak...hamabortzean behin, TTIPI-TTAPA ale bat etxean jasotzen dugun aldiro, herri oso bat mututzen da, munduaren zati bat isiltzen da.

Baina hizkuntzak ez dira bere gisa hiltzen, hiztunak ez dira bat-batean mututzen... ongi programatutako heriotza da hizkuntzena. Ameriketaraino joan gabe, etxean berean aspaldixkotik ari dira programatzen euskararen heriotza. Harrigarria bada ere, galdu hurren dauden animalia espezieak babesten diren garaian, eraikinak ondare kultural izendatzen diren garaian...laguntza behar duten hizkuntzak zapaltzea libre da, eta zapalketa hori bideratzeko bitartekoak paratzea legez babestua dago.

Legeak herritarrek babesteko baldin badaude...euskarak nonbait, arrisku handia sortzen du, zer erranik ez Iruñeko haur eskoletan, eta medikuen ahotan, eta administrazioako langileetan... euskara jakitea arma arriskutsua baita. Hizkuntzak ez baitira komunikatzeko bakarrik sortu, Gonzalo Luanko Txileko maputxeak erran bezala «Zure herriaren hizkuntza berreskuratzean, zure burua deskolonizatzen ari zara. Erresistentzia modu bat da».



MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA

Mari eta 'First Lego League'

Irailaren 23an, goizean, 09:50ean, Udazkeneko Ekinozioa gertatu berri da, urtaro berria estreinatu dugu. Ikasturte berria martxan, proiektu berriak martxan familia zein ikasleentzat, eta oro har, udako eguneroko martxa eroei orden pixka bat emateko urteko sasoiari iritsi da.

Zeruan ere, aldaketak ditugu. Udako Triangeluak nagusitasuna galduko du Casiopea Erreginari bidea libre utziz. Denbora-ordena paratzeko erabili ohi zituzten konstelazioak gure arbasoek. Euren bazekiten izar jakin bat edo bertze ikusi ahalah eguraldiak nora joko zuen, edota zer landatu behar zen. Konstelazioak, jakin badakizue, izarrek osaturiko formak dira, gizakion irudimenez jantzitakoak. Nolabait ere, zeruko mapa bat osatzen dute, eta Nazioarteko Astronomia Elkar-goak zerua gaur egun 88 konstelazio ofizialekin banatzen badu ere, kultura bakoitzak bereak ditu.

Zenbait euskaldunek Casiopea zegoen tokian Mariren Baratzea irudikatu zuten. Nik bi mendi ikusten ditut zonalde horretan, eta irudimenarekin jolasean jarraituz, *First LEGO League*-ko logotipoarekin hasi naiz pentsatzen, zerua behatu dudanean.

First LEGO League ikasle gazteak zientzialari eta ingeniari moduan pentsatzera eramanez dituen erronka da, ingurua

behatz eta irudimena erabiliz robotikaren bitartez mundua aldatzeko gonbita egiten duena. Parte hartze-ko, ikasleak taldetan bilduko dira eta zenbait hilaibetez proiektu zientifiko bat garatu beharko dute.

First LEGO League Nazioarteko ekitaldia den arren, estatu-ko eta eskualdeko faseak ditu. Nafarroako txapelketa Iruñeko Planetarioak antolatzen du, eta lerro hauen bitartez, 6-16 urte bitarteko ikasleak parte hartzera animatu nahi ditugu. FLL Erronkak urtero gai bat plazaratzen du, eta aurten hiria edo herriak eraldatzeko eskatuko zaie ikasleei: Nola sor ditzakegu bizi eta lan egiteko inguru hobeak? Eraikin zein herrien hazkuntza, eboluzioa eta aldaketa aztertu dute taldeek eta ondorengo epe luzerako proposamen berritzaileak plazaratu beharko dituzte lan egin eta bizitzeko tokien hobekuntza sustatzeko. Hori guztia gaur egungo baliabide eta teknologia erabiliz.

Mariren baratzea zeruan utzi dugu, baina gaur egun zenbait pisutan baratzeak balkoietan jartzeari ekin diotela ikusi dugu. Robotikarekin, adibidez, baratze horien eman-kortasuna hobetzeko gai izanen gara? Behin bati entzun nion: «Gakoa ez dago gure haurrei zer nolako mundua utziko diogun pentsatzean, gakoa gure planetari zer nolako haurrak utziko dizkiogun pentsatzean dago».

Udazken on!

«GAKOA GURE PLANETARI NOLAKO HAURRAK UTZIKO DIZKIOGUN DA»

11 GALDERA LABUR

UXUE ITURRIA RAZKIN ETXALARKO GAZTEA

«Jendeari gure kanta gustatu zaiola ikustea pozgarria izan da»

Nor da Uxue Iturria?

Etxalarko gazte bat, lagunekin trikitixa jotzen aritzea gustuko duena.

Noiz hasi zinen trikitixa ikasten?

Orain dela bederatzi urte, zortzi urte nituelarik. Ordurako panderoa jotzen nuen.

Zer da musika zuretzat?

Zaletasun handiena; kontent nagoenean hori erakusteko modua, baita estututa nabilenean lasaitzen laguntzen didana ere.

Erlaitz taldeko kidea zara...Noiz sortu zenuten taldea?

'Mundua aldatu' kantarekin batera sortu genuen kuadrillako lau lagunek: Martxel Larrazak, Olaia Iturriak, Leire Iribarrenek eta nik. Herriko bestetan jo genuen kanta

lehendabiziko aldiz eta hagit berezia izan zen guretzat.

Zer dela eta sortu zenuten kanta?

Euskal Herriko trikitixa elkar-teak antolatutako maketa lehiaketarako sortu genuen orain dela bi urte. Bortxaketen gaia pil-pilean zegoenez, gustuko genuen Onintza Enbeitaren letra hartu genuen. Gure abestia ez zuten diska grabatzeko aukeratu. Aurten Itsaso Elizagoien eta Xurxo Nuñezen laguntzari esker, grabatzea lortu dugu.

Sortze-prozesu horretan zer izan zen zailena?

Abestiaren zatiak trikitixa klaseetan eta norberak bere etxean asmatu genituen. Horiek elkartzea eta denon gustukoa izatea izan zen zailena.



Bi hilabetez 9.000 bisitaldi inguru izan ditu... Zer sentitzen duzue hori entzutean?

Sorpresa izan da. Bideoa guri gustatu zitzaigulako igo genuen eta hagit pozgarria izan da jendeari gustatu zaiola ikustea.

Orain, bigarren kanta buruan?

Epe motzera begira ez dugu proiekturik baina etorkizunean zerbait egiteko asmoa dugu.

Musika ez den zaletasunen bat?

Lagunekin egotea gustatzen zait. Maite ditudanekin den-

bora partekatzeak zoriontsu egiten nau.

Zer du Etxalarrek bertze herriek ez dutena?

Txoko politik eta herri-giro berezia dituen herria dela erranen nuke. Herriko mendi ederrek lasaitasuna transmititzen dute.

Amets bat?

Trikitixaren eskutik arlo berri batzuetan murgiltzea, orain artekoa utzi gabe eta orain arte bezala gozatuz.



1951tik

Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoza

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Mairidireak toailak

Edredoi-azal nordikoak

**Funda nordiko eta
edredoietan espezialistak**



IRAKURLEAK MINTZO

Feijoo, ETBko zuzendari

JOSEBA OTANO VILLANUEVA

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Administrazioan Euskaraz Taldeak honako idazki hau bidali dio (galizieraz) Galiziako lehendakari Alberto Núñez Feijóori (PP):

«Alberto Núñez Feijóo agurgarria:

Ikusirik Galiziako Telebistak galizieraz emititzen dituela film, telesail eta dokumental guztiak, eta kalitate handiko telesailak produzitu dituela hizkuntza horrexetan, esaterako *O sabor das margaridas*, Netflix plataformaraino ere iritsi dena, eta ikusirik, orobat, ETBk, tamalez, urteak daramatzala film guztiak espainieraz ematen (salbuespen urriekin), eta aktore euskaldunak beharturik daudela kanpora joatera, ez dagoelako euskarazko produktiorik, proposatu nahi genizuke ETBko zuzendari izateko kargura aurkeztea.

Bistan da ETBko azkeneko urteetako zuzendariak iparra guztiz galdurik dutela, eta ahaztu dutela zer eginkizun izan behar duen ETBk euskara berreskuratzeko eta sustatzeko.

Ez dugu dudarik: Zurekin, ETBk hobekuntza nabarmena izanen du.

Zure erantzunaren zain, jaso ezazu agur bero bat.

Administrazioan Euskaraz Taldea».

Eranskin gisa, hona hemen iraileko aste hartako (2019-09-09 – 2019-09-15) filmen konparazioa:

TVGk emandako filmak: *Cidade de ladróns* (*The town*), galegoz; *A cicatrice branca*, galegoz filmatua; *Crazy, stupid love*, galegoz; *Gran Torino*, galegoz; *Illegal*, galegoz; *O xinete pálido*, galegoz eta *Beleza oculta*, galegoz.

ETBk emandako filmak: *El teniente otomano*, espainieraz; *Al caer la noche*, espainieraz; *Catwoman*, espainieraz; *Las novias de mi novio*, espainieraz; *Una novia diferente*, espainieraz; *Pequeñas mentiras sin importancia*, espainieraz; *Mary Higgins Clark: Mi querida Sunday*, espainieraz; *La hija del éxito*, espainieraz; *Asesinato en la alta Saboya*, espainieraz eta *Impulso criminal*, espainieraz.

BOTA BERTSOA

UNAX AIZPURUA IBARGARAI

BAZTAN-BIDASOKO XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETAN 2. SARIA
(10 URTE ARTE)

Gure Txokoa taldea

Doinua: Gizona da zoroa



*Futboleant hastera
nuen nik pentsatu
aita eta amari
ideia gustatu
Beran fitxa egiteko
hiru mila datu
Gure Txokoa nahi dut
bertsotan aipatu.*

*Lehen entrenamendura
joan nintzen lasai
Matxada iruditu
zitzaidan oso guai
lagunak egitea
baizik ez nuen nahi
lagun onenak ditut
Xiker, Xan ta Ibai.*

*Banoa penaltia
gogor botatzera...
Aupa Unax! Oihuka
lagunak batera.
Baloia ez bada iristen
ateko sarera
lagunak etorriko
dira animatzera.*

*Beti Gazteko hoiek
maila ona dute
ta gainera hamabi
urte badituzte.
Aise izanen dela
ez dezatela uste
borrokatuko gara
irabazi arte!*

*Hemen Gure Txokoa
taldea nuen gaiz
bertsotan aipatzea
gertatu ohi zait maiz.
Gauza bat errateko
nabil oso garaiz
Gure Txokoa hortan
beti egonen naiz!*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



Zigarroaren ketik ihesi

Urtetan erretzaile izan ondotik, arrazoi bategatik edo bertzegatik tabakoa utzi duten eskualdeko zortzi lagunen testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK.

G. PIKABEA

Metxeroa hartu eta klik. Zigarroa ezpainetan hartu eta hari zupa, plazera sentituz. Milioika dira munduan erretzaileak, egunak joan eta egunak etorri, behin eta berriz, keinu bera errepikatzen dutenak, batzuek gehiago eta bertzeek guttiago.

Batzuentzat, ordea, iragana bihurtu da eta hori da, arrazoi bategatik edo bertzegatik tabakoa uztea erabaki duten eskualdeko zortzi lagun hauen kasua: Xabier Maritorea Zubietta (Arraioz, 1985), Lurdes Maritxalar Tapia (Lesaka, 1959), Arantxa Barriola Telletxea (Leitza, 1975), Ibai Iribarren Larretxea (Urroz, 1995), Eneko Ravina Alvarez (Eratsun, 1990), Araceli Martin Martin (Lesaka, 1961), Esther Arrastio Larraburu (Narbarte, 1951) eta Pello Telletxea Sagaseta (Beintza-Labaien, 1957). Tabakoarekin izan duten harremanaz aritu dira.

Zortziek 14-16 urterekin eman zituzten lehenbiziko zupadak «lagunartean, ton-

toarena eginez». Horrekin bat datoz Maritxalar, Barriola, Iribarren eta Telletxea. «Adin horretan nortasuna ez dago garatua eta ez zaren zerbait erakusten saiatzen zara, horien artean, heldua zarela». Maritorenak horrekin lotu du erretzen hasi izana, «gizonkeria».

Martinen ustez, berriz, «adin horretan zigarro batekin interesgarriagoa zarela iruditzen zaizu. Lagun batzuek erretzen zuten eta egun batean eskaini eta onartu nuen». Arrastio lagun zaharragoen bitartez lotu zen erretzaileen multzora: «60ko hamarkada zen, emakumeak ostatueta ateratzen hasi ginen, eta bertzeak erretzen ikusita, gu ere hasi ginen».

Batzuek hamar, bertzeek 40

«Bestetan ateratzen ginenean» errez hasi ziren Ravina, Barriola eta Iribarren eta «lagunartean, noizean behin zigarrorotxo bat errez» Maritxalar eta Arrastio; «lehenbizian gutti eta gordeka, ez etxe-koek

ezta kanpokoek ere ikusteko». Denborarekin, ordea, eguneroko zerbait bihurtu zen.

Maritorenak kontatutigunez, «ez naiz, astakeria erre izan dutenetako bat izan. Ez naiz egunean inoiz hamar zigarro inguru baino gehiago erretzera ailegatu, besta giroan ez bada behinik behin». Berdintsu ibiltzen zen Maritxalar. Haurdunaldian utzi zuen, baina «utzi arren, berriz bukatzen nuen nire 10-12 zigarrorak erretzen. Bizpahiru zigarro erreko banitu ez nuela utzi beharrik izanen erraten nion nire buruari, baina ez zen manerarik. Birekin hasi eta hamar erretzen ahal nituen».

Barriola, Ravina, Martin eta Arrastio egunean pakete bat erretakoak dira. «Nik biltzeko zigarrorak erretzen nituen eta 18-20 erretzera ailegatu naiz», azaldu du Ravinak. Martinek «egun berezietan, seguru gehiago izan direla» adierazi du eta hori berretsi du Barriolak: «parandan, bi pakete erretzeko

kapaz nintzen, behatzak horitua izateraino».

Arrastiok, bere aldetik, ez dela «beti kopuru jakin bat erre izan duen horietakoa izan» aipatu digu, «momentuaren arabera, gehiago edo guttiago egiten nuen. Haurdun gelditutakoan edo bularra emate-rakoan ez nuen erretzen, osasun arazoren bat baldin banuen ere ez, baina ongi nengoenean, berriz erretzen hasten nintzen. Beti hola, utzi eta hasi».

Aitzinekoen markak hautsitakoak dira Iribarren eta Telletxea. Lehena egunean «pakete eta erdi» erretakoa da eta Telletxea «bi, 40 zigarro baino gehiago». «Bi ordu ere ez nituen aguantatzen erre gabe eta noizbait tabakorik gabe gelditzen banintzen, kotxea hartu eta Doneztebera bila joateko kapaz nintzen», dio labaiendarrak.

Ondorioak

Badakite erretzeak ez diela mesederik egin: «ttikitan asma-tikoa nintzen eta hainbertze

errez, berriz inhalagailuarekin hasi behar izan nuen», aitortu digu Iribarrenek. Maritxalarrek «kristoren katarroak» harapatzen zituela dio, eta Barriolak eta Arrastiok «sabela gaizki» sumatzen zutela. Tabakoarekiko harremana «esklabotzarekin» lotu du narbartearrak: «tabakorik ez banuen kotxea hartu eta eroatera joaten nintzen, beti behar nuen».

Telleteak, berriz, goizeko eztulaz gain, mendian sumatu zuen ezintasuna: «mendian ibiltzea asko gustatzen zait eta 40 urterekin itotzen nintzela konturatu nintzen». Hori da, hain zuzen, Maritorenaren irudiko, «ondoriorik makurrena», hau da, «hatsa lehenagoko arintasunarekin ez hartzea». Bere hitzetan, «tabakoak ez du berehalako ondoriorik uzten. Hortzak horitzen dira eta erretzen duzun aldiro urrunetik nabaritzen da tabakoaren urrin desatsegina». Baina hori baino gehiago «mantso-mantso barnetik izorratzen zaituen eritasun bat bezala dela» uste du.

Martinek argi du tabakoak utzi dizkion ondorio guztiak «txarrak» izan direla. «Kirola gustatzen zait, mendian ibiltzea, aerobic egitea, eskiatzea... eta aunitz nabaritzen da birkak ez daudela ongi, batez ere malda goiti». Hortik aparte, «ez zait gustatzen ematen dugun irudia» eta kontent dago, «gizartea aldatu» delako eta «zorionez, orain erretzaileak ez garelako hain interesgarriak».

«Erretzeak ez du zentzurik»

Halako batean, uztea erabaki zuten: «erretzeak ez duelako zentzurik», dio arraioztarrak: «Ez zaitu trankiltzen, dependentzia sorrarazten dizu, ilobek zer ari zaren galdegin eta lotsa sumatzen duzu, osasuna izorratzen ari zara, estatuari sosa ematen... Ez erretzeko arrazoiak aise gehiago dira». Hala alboratu zuen tabakoa duela aste batzuk. Uztea «erraza» izan omen da, «denboran irautea da afera». Baina «eginahalak» egiteko prest dago.

Beldurrari aitzin eginez

«Zer egin behar dut bihar erre gabe?» galdetzen omen zion Maritxalarrek bere buruari, eta «beldurra eta bertigoa sentitzen nituen». Baina ausartu zen eta ez damutu: «ez zitzaidan izaera aldatu, janariari gustu gehiago hartzen hasi nintzen eta gehiago jaten ere bai; 3-4 kilo gehiago hartu nituen, baina gehiago ibiltzen hasi nintzen eta sasoi aldetik nire burua indartsuago sumatzen dut». Bere ustez, «lehenbiziko egunetako esfortzuarekin eta gerora konstantziarekin utz daiteke». Laster hiru urte beteko ditu utzi zuenetik, eta «gusturra» dago horrela.

Bigarrenean bai

Tabakoa «garaiz» utzi zuela uste du Barriolak. Lehenagotik saiatua zen: «aurreneko aldiz, lagun batekin apustua eginda utzi nuen, baina urtebetera, lanean egun txar bat izan nuenean, berriz hasi nintzen». Bigarrenean lortu zuen, «27-28 urterekin, haurdun gelditzeko asmoa nuenean». Ordutik «ez dut sekula erre, ezta tentaziorik sentitu ere». Justu kontrakoa: «orain tabako usainak molestatu egiten dit». Esfortzu handirik gabe utzi omen zuen, «nahiko burugogorra naiz, eta gauza bat eginen dudala esaten badut egiten dudak horietakoa naiz». Hala izan zen eta orain «harro» sentitzen da, eta «osasunez askoz hobe». Aipatu digunez, «harrituta» dago «gaur egun dagoen informazioarekin zenbat gazte hasten diren erretzen ikusita».

Bestondoari esker

Iribarrenek ongi gogoan du azkeneko erre zuen eguna: «2018ko urriaren 1a zen, herriko bestak akitu berriak, eta bestondoarekin ezinean, ezin nuen erre ere egin. Hala, lau egun erre gabe egin nituen». Hortxe hasi zen dena: «lau egun egin banituen gehiago ere egiten ahal nituela pentsatu nuen». Baita egin ere. «Orain, eguneroan ez dut erretzen, egun



Xabier Maritorenak aste batzuk daramatza erre gabe.



Laster hiru urte beteko dira Lurdes Maritxalarrek tabakoari aski erran zionetik.



20 urteren bueltan aunitz erretzen zuen Arantxa Barriolak.



Eneko Ravinak duela hilabete eta erdi eman zuen uzteko pausoa.

bereziren batean pururen bat erre izan dut, baina gehiago ez». Gisa horretara, ongi dabilela dio: «ez dut inhalagailuaren beharrik. Osasunez aldea sumatu dut, sasoikoago nago, eta mendira joatean, ez naiz kotxetik atera orduko itotzen».

Lortzeko bidean

Eratsundarrak «osasun kontuengatik eta musika talde bateko kantaria izanda, ahotsa zaintzeko» erabaki zuen duela hilabete eta erdi tabakoa egunerokotik kentzea. Geroztik, aldea nabaritu du: «lasterka pixka bat ibiltzen hasi naiz eta hauspoa hobetzen ari zaidala sumatzen dut, gorputza puskaz ere sanoago dut eta usaimena ere hobetu zait». «Tarteka» erre duela onartu digu, «azkena kontzertu baten ondotik», eta hortaz, ez du oraindik erretzaile ohi ikusten bere burua. Baina «lortu dudanarekin satisfazio handia» sentitu duenez, nahiz eta «tentazioa handia» izan, garbi du zer den nahi duena: «tabakoa utzi». Hori lortzeko «borrokan» segitzeko asmoa du.

Utzita «dena ona»

«Osasunagatik eta norbere buruarekiko maitasunagatik» erabaki du Martinek tabakoa uztea. «Hagitz umiliagarria da objektu baten menpe egotea, aipatu gabe gastatzen dugun dirua, hagitz garestia baita».

Oraindik ez omen du erabat utzia: «ez da erraza, baina horretan ari naiz». Bere irudiko, «menpekotasun fisikoa errazago gainditzen ahal da, bi astetan okerrean pasatzen da, baina psikologikoa, nire kasuan hagitz zaila da. Pentsa, 41 bat urtez egunero erre dut, ohitura bihurtu da eta hori aldatzea zaila egiten zait. Batzuetan ohartu gabe zigarroa hartu izan dut, automatikoki, eta nire buruari 'ei, kontuz, utzi duzu!', erran behar izan diot».

Uzteko bidean, fisikoki «primeran» dago: «aldapake ez dira hain gogorrak, korrika edo kirola egitean erresistentzia

handiagoa da, eta bertzetik, akats bat zuzendu dudala sentitzen dut». Hortaz, «dena ona».

Tabakoaren beldur

Duela hamar urte baztertu zuen tabakoa Arrastiok, «beldurra ematen zidalako erretzen segitzeak». 57 urte zituen, «senarra eritu, eta gero eta gehiago erretzen hasi nintzen». Aldi berean, «alabak haurdun zegoela eta erretzeari utzi behar ziola erran zidan, eta berekin batera uztea erabaki nuen». Aparteko laguntzarik gabe, tabakoaren legea bidelagun, «nahiko aisa» utzi omen zuen: «lege berriarekin lehen erretzen nuen tokietan erretzea debekatu zuten». Informazioa jasotzeak ere lagundu zion, «aditzen denarekin, hainbertze urtez erretzaile izanda, zerbait pasatuko zitzaidala pentsatzen hasia nintzen». Orain, ordea, «ez dut tabakoaren beharrik» eta «hagitz kontent» dago. «Katarro guttiago hartzen ditut eta ahoan ez dut gustu txarrik».

Erabaki zaila

Urte batez «tabakoa uzteko erabakia ezin hartuz» ibili zen Telletxea, «inori deus ere aipatu gabe, beldur bainintzen ez nuela uzteko indar nahikorik izanen». Azkenean, 40 urterekin, «bi arrebek utzi behar zutela eta, haien arrimuan saiatzea erabaki nuen». Erabakia hartzea «oso gogorra» egin zitzaion arren, «uste baino errazago» utzi zuen. Are gehiago, erakustaldi ederra egin zion bere buruari: «bi hilabetez tabakoa atorrari ibili nuen, zigarrorik erre gabe».

Erretzaile sutsua izatetik, «tabakoa ez aguantatzera» pasatu da orain. Baina kontent dago: «kilo batzuk irabazi nituen, baina konpentsatzen du; mendian askoz errazago ibiltzen naiz eta lehengo katarroen erdirik ere ez dut harrapatzen».

Tabakoa utz daitekenaren adibide argiak dira. Erretzaile handienak ere egin dezake, laguntzarekin edo gabe, «guttienez, saiatsu, posible baita».



Bestondoa garaitu ezin zuela, erabaki zuen tabakoa uztea Ibai Iribarrenek.



Tabakorik gabeko egunerokora ohitzen ari da Araceli Martin.



15 urtetik 57 urte egin arte erretzailea izan zen Esther Arrastio.



40 urte arte egunean bi pakete erretzera ailegatu zen Pello Telletxea.

«Mugimendu handia du Aurrerak eta horri eutsi behar diogu»

KARLOS AGIRRE ZUBITUR LEITZAKO AURRERA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Aurrera Kirol Elkartea formalki 1972an eratu zen, nahiz eta aurretik ere bazuen martxa. Orduan sartu zen lehendakaritzan Agirre eta geroztik 20 urte baino gehiagotan ardura horretan aritu da

G. PIKABEA LEITZA

Miresmenez eta harrotasunez mintzo da Leitzako Aurrera Kirol Elkartean, berezia eta estua baita harekin duen harremana. Karlos Agirre Zubitur *Gazteluk* (Leitza, 1948) orduak, egunak eta urteak pasatu ditu elkartearen sartuta, eta atera ezinik segitzen du oraindik. Gutxi izanaren dira Leitzako elkartearen martxa berak adina ezagutzen dutenak. Ez zaio horretarako motiborik falta; 20 urte baino gehiago daramatza elkartearen lehendakaritzan, hiruzpalau aldiz; berak ere ez dakizen bat, eta erreleboa hartzeko «prest» dagoela aitortu badigu ere, lotura hain handia izaki, garbi dio «ez badu beste inork segitu nahi, ez dut aise utziko». **Ibilbide luzea du Aurrera Kirol Elkarrean. Azaldu...**

Oso historia luzea du eta zaila da elkartearen noizkoa den zehatz jakitea. Ofizialki, 70eko

hamarkadan eratu zen, baina dokumentu zaharrei esker elkartearen lehenagokoa dela badakigu. Elkarteari buruzko detaile asko ageri dira agiri zaharretan. Adibide gisa, 1930eko futbol taldearen argazkiak badira, 1948ko pestetan Aurrerak 4.300 pezetan ordainduta zezenak ekarri zituzten Debatik, 1949an zezenentzat 224 kilo belarren truke 260 pezetan ordaindu zituen eta 1951eko pestetan Aurrerak antolatutako bazkarian 128 lagun bildu ziren 43 pezetaren truke. 1955ean, berriz, Anaitasuna peñako bat pestetan zezenak harri-patuzuen eta Aurrerakokideen aldetik jasotako tratua eskertzeko Anaitasunakoen gutuna ere bildua dugu. Andres Irisarri maisua zen orduko lehendakaria, Leitzako alaba batekin ezkondua. Formalki, ordea, elkartearen 1972an sortu zen. 15 lagunekoa taldea bildu

eta Jose Mari Sagastibeltza orduko alkatearen bitartez, baimen guztiak eskuratu eta estatutuak onartzea lortu genuen.

1972an, zu izan zinen lehenbiziko lehendakaria. Orduko nolako oroitzapenak dituzu?

Ez genuen lokalik eta orain dugun eraikineko bajeraurretan hartu genuen. Hor moldatzen ginen eta pixkanaka-pixkanaka handitzen hasi ginen. Eraikin horretako etxeo andreak hildu zenean, etxea erostea pentsatu genuen eta 1987an, hiru miloi pezetaren truke, hiru solairuko eraikina erosi genuen. Baina dena berritzeko zegoen eta horretan

«BEREZIA IZANEN DA URRIAREN 5EAN EGINEN DUGUN AURRERA EGUNA»

rako dirua biltzeko, 1988ko ekainaren 5ean, 160 leitzar aizkolari elkartearen genituen garai hartako Larbando futbol-zelaian aikorari aritzeko. Ederra izan zen hura, auzolanaren emaitza. 80 urtetik gorakoak eta gaztetxoak aikorari elkarrekin ikusi genituen. Jende asko bildu zen eta orduko oso oroitzapen ona daukat. Udalak egurrak jarri zizkigun, saralegitarrak laguntz handia eskaini ziguten egurrekin eta jendeak auzolanaren parte hartu zuen. Elkartea fundamendu jartzeko hura izan zen bitartekoa. Bildutako diruari esker, 810.420 pezetaren truke, obretako proiektua ordaintzea lortu genuen. Eraikina goitik behera berritu genuen, eta hasieran, normala den bezala, diru justu ibilginen arren, denborarekin buelta eman genion. Orain hiru solairuko eraikina dugu, dena berritua. **Nolako martxa du gaur egun?** Mugimendu handiko elkartearen da. 360 bazkide gara eta poliki-poliki berriak etortzen ari dira. Horrez gain, batzordearen antolatuak gaude. Alde batetik, pilotako batzordea dugu eta aipatzekoa da, aurtengo neska asko animatu direla. Gainera, aurtengo Elkarpeletoak zentroak esku pilota sustatzen urteetan egin duen lanagatik saria eman dio Aurrera pilotari eskolari. Futbolearen eta areto-futbolearen ere hainbat talde ditugu eta dantza taldeak ere ibilbide luzea du.



1988ko ekainaren 5ean Aurrera Elkarteen eraikineko obra-proiektua ordaintzeko 160 aizkolari leitzar bilduz aikora saioa antolatu zuten. UTZITAKO ARGAZKIA

Bateko eta besteko, 300 bat neska-mutiko mugitzen dira. Mendi-bizikleta eta mendi taldeen batzordeek ere martxa polita dute. Etxeko komisia, besteak beste, Aurrera Egunaz, tabernako martxaz edota pestetako programa banatzen dutenen bazkariak arduratzen da; pesta batzordean ere sartuak gaude eta Eguberrietako komisiok ere hainbat lan egiten ditugu. Berriki, batzorde berriak ere sortuak ditugu. Erraldoi eta buruhandien konpartsa orain antolatu dugu eta horrez gain, aurten, aurreneko aldiz, emakumezkoen eskubalo taldea atera dugu. Hasiera hartan, Andres Irisarri lehendakari zela, pesta, dantza eta futbolaren inguruan mugitzen zen Aurrera, eta denborarekin, pixkanaka-pixkanaka, gainerako komisiok sortu dira. Oso kontentua gaude elkarteak gaur egun duen mugimendarekin, batzordeetan herritar asko ibiltzen dira. Martxarik ez zaio falta; gure betiko arazoa bestelakoa da, inork ez du lehendakari izan nahi.

Lan handia delako?

Lana eta ardura dela esanenuke. Nik neronek ez dakit zenbat urte daramatzadan presidente karguan, 20 urte baino gehiago bai. 2004az geroztik ninaiz lehendakaria, baina aurretik beste hiru edo lau aldiz izana naiz. Urte asko dira, eta tartean, gorabeherak eta disgustuak izan ditugu,



Karlos Agirre Zubitur leitzarrak ongi ezagutzen du Aurrera Kirol Elkartearen martxa. ENERITZ IRAOLA

erabakiak hartu beharrak eta haserreak, baina horien gainetik dago elkarteak eman didan guztia.

Erreleboa emanen zenuke?

Orain jubilatua naiz eta denbora badaukat, baina gorabehera handiak izan ditugu. Bizpahiru momentutan, elkarteak ixteko arriskuan ere egon zen inor aurkeztu ez zelako eta hori ikusita berriz sartu nintzen. Aurrera Elkartearekiko dudak sentimendua berezia da, beti hemen ibili naiz, eta ez badu beste inork segitu nahi nik ez dut aise utziko. Hala ere, bi urtetik behin egiten ditugun hauteskundeetara talde polita aurkeztzen bada, ni erreleboa emateko prest nago.

Zein dira diru-iturriak?

Bazkideek hilabeteetan sei euroko kuota ordaintzen dute, eta komisiok daukaten hiru euro. Hortik aparte, Udalak urtean 6.000 euroko dirulaguntza ematen digu eta guretzat oso garrantzitsua da. Inauterietako eta pestetako diru bilketarekin eta inauterietan eta pestetan tabernatik dirua ateratzen dugu. Kirol hitzorduek eta bestelako ekitaldiak antolatzen ditugunean, herriko komertzioek asko laguntzen digute eta hori ere eskertzekoa da.

Urriaren 5ean Aurrera Eguna ospatuko duzue... Berezia izanen da aurtengoa...

Bai. Aurten 31 urte beteko dira elkartearen eraikineko

obretako proiekturako dirua biltzeko aizkora saio hura antolatu genuenetik, eta aizkoran aritu zirenei eta beraien senideei esker ona adierazteko oparitxo bat banatuko diegu. Gainerakoan, batzordeekin elkarlanean egun osoko egitaraua antolatzen dugu. **Elkartearen etorkizuna nola ikusten duzu?**

Ona, dudarik gabe. Edozein momentutan, gazte kuadrilla bat zuzendaritzan sartuko dela pentsatu nahi dut, ideia berriak sartu eta berritzea beti ona baita. Bitartean, ahal duguna egiten saiatuko gara. Elkarte oso ongi doa, herritar askoren bilgune da, eta ezin dugu hori galdu; horri eutsi behar diogu.



Klima aldaketaren kontrako neurriak iragarri ditu Udalak

Irailaren 27ko nazioarteko greba egunarekin bat egin zuen eta, bere eskumenen barne, politika eraginkorrak garatuko ditu

TTIPI-TTAPA

Klima aldaketaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko konpromisoa hartuz, EHBilduk aurkeztutako mozioa ahobatez onartu zuen Udalak irailaren 19ko batzarrean. Larrialdi klimatiko egoera deklaratu ondotik, egoeraren larritasuna aitortu eta neurriak berehala hartzeko eskaria egin die Udalak Nafarroako eta Espainiako Gobernuari. Horrekin batera, irailaren 27rako deituta zegoen nazioarteko grebarekin bat egin eta herritar guztiak parte hartzea animatu



Klima-larrialdi egoera deklaratu du.

tu zituzten. Larrialdi klimatikoari behar bertzeko arreta eskaini eta politika publiko guztietan dagokion tokia ematea eskatu dute. Nafarroako Gobernuari eskaera zuzena

egin dio Udalak, «lehen baino lehen onartu dezala Aldaketa Klimatikoa eta Eredu Energetikoaren Trantsizioarako Legea» eta neurriak hartzea deitu du, «larrialdi klimatiko egoera deklaratzeko eskatzen diogu, eta honi aurre egiteko beharrezkoa den karbono gabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzea premiatu». Ez hori bakarrik, etorkizuneko egoeri aurre hartzeko ere eskatu dio: «aldaketa klimatikoaren ondorioz izanen ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzeko eskatzen diogu».

Udalak bere aldetik, bere eskumenen barne, aldaketa klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzeko «konpromiso irmoa» adierazi du. Onartutako mozioa Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministerioari bideratuko die.

La Trócola zirkuaren 'Emportats' lana larunbatean

La Trócola zirkuak *Emportats* lana eskainiko du urriaren 5ean, larunbatean, 19:00etan Kultur Etxean. Nafarroako Antzoki Sareak, Nafarroako Gobernuaren eta Berako Udalaren laguntzaz antolatutako emanaldirako sarrera zazpi euro ordaindu beharko da.

Haurrentzako ipuin kontalaria urriaren 11n liburutegian

Izaskun Mujika ipuin-kontalari urnietarrak 1, 2, 3... *Ubuntu* emanaldia eskainiko du urriaren 11n, ortziralean 18:00etan herri liburutegian. Bortz eta bederatzi urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako saioa izanen da. Sarre-ra doan izanen da.

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

Zure beharretara egokitzen gara

Egongelak
 Logelak
 Sukaldeak
 Bainuak

Gazteentzako logelak
 Sofak
 Armairuak
 Koltxoak

948 630 537 mueblesamets.com

Garaitarretan eta Dornakun abiatu dira auzo-batzarrak

Urriaren 3an Zalainen eta Eltzaurdian egingen dituzte eta hilaren 10ean Berako plazan, Legian eta Iturlandetan

TTIPI-TTAPA

Herriarren parte-hartzea bultzatzeko helburuarekin, eta agintaldi osorako plangintza bat osatu eta herriarren eta Udalaren arteko harremana erraztu asmoz, auzo-batzarrak egiten hasiak dira ortzegunean. Lehenbizikoak Garaitarretan eta Dornakun egin zituzten irailaren 26an.

Batzar hauetan udal ordezkariak auzoetara joan dira, auzotarren beharrak zein diren

zuzenean jakiteko. Pasa den agintaldian auzoan egin ziren lanak eta egin ez zirenei buruz ere solastatuko dira. Aldi berean auzotarren datuak jasoko dituzte, Udalaren eta herriarren komunikazioa errazteko.

Herriko Etxeko web orrian ere eskuragarri dago auzo-batzarren egutegia. Zalantzarik izanez gero, 012ra deitu edo Udal ordezkariaren bati galdeztzen ahal zaio.

AUZO-BATZARRAK

EGUTEGIA
URRIAREN 3A, ORTZEGUNA
ZALAIN Auzoko askan / 18:30
ELTZAUDIA Matinbordan / 19:30
URRIAREN 10A, ORTZEGUNA
PLAZA-PLAZA ZAHARRA Plazan / 18:30
LEGIA Osasun zentroan / 19:15
ITURLANDETA Plazan / 20:00
URRIAREN 17A, ORTZEGUNA
EZTEGARA Frontoian / 18:30
KANTONBERRI Zahar Etxean / 19:15
ALTZATE-URALDEA Ikastola atarian / 20:00
URRIAREN 24A, ORTZEGUNA
ITZEA Itzeako atarian / 18:30
ILLEKUETA Konpaneko zubian / 19:15

MATZADA Futbol zelaian / 20:00
URRIAREN 31, ORTZEGUNA
BIDASOA Xubi-Xabalen / 18:30
FORU PLAZA-IPARK Ansoñean / 19:15
LEGARBIDEA Plazan / 20:00
AZAROAREN 7A, ORTZEGUNA
SUSPELA Garatxekobordan / 18:30
SUSPEL TTIKI Ur-depositoan / 19:30
AZAROAREN 14A, ORTZEGUNA
BORTZIRIAK AUZOAN / 18:30
IBAIALDE AUZOAN / 19:15
AGERRA Zelai gorrian / 20:00
AZAROAREN 21A, ORTZEGUNA
ZIA Anguleroan / 18:30
KAULE Maritxenean / 19:30



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro bikaina Illekuetako bestetan

Giro bikaina izan dute Illekuetako bestetan. Konpaneko zubitik bota zuten txupinazoaren ondotik, buruhandi eta erraldoiekin ibili ziren, gaiteroek lagunduta. Herri-kirol saio ikusgarria ere izan zuten. Hondar egunean, Gure Txokoako dantzarien saioa (argazkian) eta pintxo-dastaketa izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Julen Zelaietak Lazkao Txiki saria

Julen Zelaietak irabazi du Ordiziako Argi berri elkarteak, Udalaren laguntzaz antolatutako 28. Lazkao Txiki Bertso paper lehiaketa, *Zor nitzun hainbeste* lanarekin. Antton Mendizabal eskulturgileak egindako *Txikia* oroigarria eta 500 euro jaso zituen saritzat irailaren 15ean Ordiziako kultur etxean.

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andonimatzako@gmail.com

ERANDONEA, S.L.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

LABE ZAR
Astelehenetik
ortziratera:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

xirgil
jalone goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

JauZena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Lizarrara bidaia prest du San Fermin elkarteak

Urriaren 10ean egingen duten ateraldiaren ondotik, hilaren 25erako elkartearen eguna antolatuko dute

AITOR AROTZENA

San Fermin erretiratu elkarteak Lizarrara bidaia antolatu du urriaren 10erako. Datorren asteko ortzegunean 08:00etan abiatu eta bidean gosaldutik, Lizarra bisitatuko dute, azoka eguna dela baliatuz. 14:15ean Barindanoko Faustina jatetxean bazkaldutiko dute. Ondotik, 17:00 aldeira Gares bisitatzera joan dira. 18:30ean abiatuko dira herrira bueltan. Txartelak urriaren 6ra arte hartu daitezke jubilatuen egoitzan, 30 euro ordainduta.

Elkartearen Eguna

Lizarrarako txangoaren ondotik, urriaren 25eko Elkartearen Eguna prestatzen buru-belarri hasiko da San Fermin elkarteak. Ohi bezala, aurten 85 urte betetzen eta Diamantezko eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten bazkideak omenduko dituzte. 12:30ean meza izanen dute, 13:30ean aureskua plazan eta bazkaria frontoian. Bazkalondoa sari-banaketa eta dantzaldia. Txartelak urriaren 20ra arte salgai daude egoitzan (helduek 40 euro, haurrek 15 euro).

Eguberrietako jantziei buruz tailerra larunbatean

Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak antolatuta, *Zer eta nola jantzi hurrengo Eguberrietan?*, baserritar jantziari buruzko hitzaldi-tailerra eskainiko du Ane Albisu Iriartek urriaren 5ean, larunbatean, 17:00etan Harriondoa Kultur Etxeko Zumarra gelan.

'Nor da otsoaren beldur?' igandean Harriondoa

Fueradeleje dantza konpainiak *Nor da otsoaren beldur?* 4-12 urteko haurrentzako dantza ikuskizuna eskainiko du urriaren 6an, igandean, 19:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Sarrera 5 euro gostako da. *Hiru txerrikumeak* eta *Txanagorritxo* ipuinetan oinarrituta da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikastolek Fraingo Oinez Basora txangoa

Tantirumairuk antolatuta, Fraingo Oinez Basoa bisitatu zuten irailaren 22an herriko, Berako, Baztango, Sarako eta Baigorriko ikastoletako ikasle, irakasle eta gurasoek. Ehun lagunetik goiti bildu ziren. Ikastolako haurrek abestu zuten, informazio-panelak ikusi eta hamaiketako dotorea izan zuten.



AITOR AROTZENA

Arrano eguna ospatu dute lehen aldiz

Arrano elkartearen eguna ospatu dute lehen aldiz irailaren 21ean. Goizean Agiñara mendi-martxa egin zuten. *Zubitik Zubira Presoak etxera!* ekimenean, *Korapiloak askatzeko unea da*, *Zubiak presoak etxeratzeko* pankarta hedatu zuten. Zikiri-jatea, Haur Txokoa eta musika izan zuten arratsaldean.

etxerako behar duzun guztia

Goi mailako PIPERRAK
Pikillo · Kristal · Nagera

Gordinik
2 euro/kiloa

Momentuan erreta
2,50 euro/kiloa

Orduetgia: Astelehenetik ortziralerara 9:00-13:00 / 16:00-19:00 eta larunbatetan 9:00-13:00
Zalain ind. 5 • BERA | T. 600 977 339 | bianditzpentsuak@gmail.com

IRU-BIDE
OSTATU · JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili

kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com



Jose Luis Echechipia organo-jotzaile aditua izanen da gidari. ANA INDABURU

Karmen Etxalarkoa ibilbidea estreinatu dute

Hiruretan hogeitaz lagun bildu ziren irailaren 21ean egin zuten estreineko ibilaldi berezian

IRUNE ELIZAGOIEN

Irailaren 21ean, pastoralaren egin eta bi urteren buruan, estreinatu zen Karmen Etxalarkoa ibilbidea. 60 bat lagun elkartu ziren kultur etxean eta azalpen orokor batzuk eman ondoren ekin zioten ibilaldiari. Bidean zehar, panel bakoitzaren ondoren geldialdiak egin zituzten horiei buruzko azalpenak

emateko: ibilbide hau prestatzeko izan duen prozesua, garai hartako Etxalarko bizi-modua eta bertze jakinarriak. Errotxenbordan denak elkarrekin gustora bazkaldu zuten trikitilarien laguntzarekin. Etorkizunera begira, ibilbidea mantentzeko konpromisoa hartu eta urtean behin auzolanerako deialdia egingen dute.



AGROSFERA

Etxalar TVE2ko 'Agrosfera' saioan

Irailaren 14an eskaini zuten Etxalarri buruzko saioa TVE2ko Agrosfera saioan. Etxalar ezaguna da landetxe kopuruagatik, usategiengatik edo kontrabandoko istorioengatik. Jabier Iriarte, Miren Vicente, Pello Apezetxea, Xanti Elizagoien, Laura Elizagoien, Axun Maia eta Jone Arrospiderekin izan ziren.



LANDAGAIN ESKOLA

Ikasturte hasiera Landagainen

Hasiera polita eman diote 2019-2020 ikasturteari Landagain eskolan. 7 ikasle eta 11 irakasle hasi dira, baita bertze hiru irakasle ibiltari ere. Denera, ia 80 ikasle daude ikastetxean eta gogotsu ekin diote ikasturteari; lagunekin elkartu eta gauza berriak ikasteko ilusioarekin.



MATTIN ZELAIETA

Mattin Zelaieta hirugarren Antsoainen

Irailaren 15ean ibilgailu klasikoaren kontzentrazioan parte hartu zuen Mattin Zelaietak Antsoainen. 100 ibilgailu baino gehiago elkartu ziren bertan. Mattinek Guzi Hispania bat eraman zuen, 1955eko motor klasikoa. Hirugarren saria irabazi zuen, motor zaharrenari eta hobekien zaharberitutakoari emandakoa.



*lagunarte, familia,
kinto besta...*

**OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA**

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com





Herriko dantzariak saio bikaina eskaini zuten. OSKAR TXOPERENA

Besten sarrerako aste hondarra bikaina izan da

Biltoki elkarteak bikain antolatutako gazta lehiaketan Bordazabaleko Frantxixka Apeztegiarena izan zen onena

TTIPI-TTAPA

Eguraldiak lagunduta bikain joan ziren bestetako egutegia-
ren lehenbiziko aste honda-
rreko ekitaldiak. Larunbata
goizez gosaria eta plater-tira-
keta izan ziren Ziobiko zelaian.
Aiert Retegi suertatu zen ira-
bazle. Pilota goxoarekin joka-
tutako Herriko Txapelketaren
finalak izan ziren pilotalekuan.
Imanol Retegi eta Xabier Al-
mandozek irabazi zuten txa-
pela, finalean Arkaitz Retegi
eta Joseba Bertiz garaituta.
Arratsaldean, urteroko dan-
tzarien saio bikaina ikusteko
aukeraz baliatu ziren herrita-
rrak, inoiz baino jendetsuagoa
izan zen ekitaldian. Hilabete-
tako lan ikaragarria ordu bat
eta erdian laburbildua. Mires-
men eta esker hitzik bertzerik
ez herriaterren aldetik.

Hamaika gazta

Igande goizean ardo dastake-
ta eta gazta lehiaketarekin hasi
zen eguna. 11 gazta aurkeztu
zituzten lehiaketara, bertakoak
denak. Herriko elkarteetako
ordezkariek eta kanpotik eto-
rritako aditu batek osatu zuten
epaimahaia. Gazta guziak

ikusit, usaindu eta dastatu on-
dotik haxe izan zen emaitza:
Frantxixka Apeztegia Borda-
zabalekoaren gaztak eraman
zuen lehenbiziko saria, Batix-
ta Migelena Allinekoborda-
koarena gelditu zen ondotik
eta Elena Retegi Argaratega-
raikoak egindakoa izan zen
hirugarrena. Azpimarratu
behar da bi azken hauen ar-
teko berdinketa bigarren das-
kaketa batez hautsi behar izan
zutela epaileek. Ardo dasta-
ketara, berriz, Nafarroako borts
upategi etorri ziren. Jendeak
5 euroren truke basoa hartu
eta nahi adina ardo probatze-
ko aukera izan zuen. Jende
aunitz izan zen ekitaldian eta
ardo dezente ere saldu omen
zen. Ilunabarrean sagardoz
lagundutako opil jatea izan
zen plazan eta eguerdian lehia-
ketara aurkeztutako gaztak
probatzeko aukera ere izan
zuten bertara hurbildu zirenek.
Herriko trikitilarien esku egon
zen arratsaldea giroz. Pres-
tatzaileak lanean gogotik ari-
tu baziren ere, karrika bitar-
teko ilarak egin behar izan
zituen jendeak opilak jateko.
Aste hondar ederra.

Adimen emozionala lantzeko tailerra antolatu du Biltokik negurako

TTIPI-TTAPA

Adimen emozionala lantzeko
tailerra prestatzen ari da Bil-
toki Elkarteak. Xehetasunak
lotu gabeak badaude ere, da-
tak finkatuak dituzte: ilbeltza-
ren 4an eta 25ean eta otsaila-
ren 1ean, 15ean eta 29an
izan dira saioak, larunbatez,

10:00etatik 14:00etara. Bazki-
de ez direnetzat ere irekia dago
ekimena. Informazio gehiago
nahi duenak juntako kideei
galdetu edo tabloian begiratu
ahal izanen du. Donna Ape-
laniz izanen da tailerraren
arduraduna eta urriaren 13a
izena emateko azken eguna.



BIDALTZO ETXARTE

Berrizaungo besta eguna ederra

Bazituzten urte batzuk Berrizaunen bestarik egin gabe.
Berreskurapena hunkigarria izan zen auzotarrentzat, urtean
zehar ia elkar ikusi ez dutenak bildu baitziren bazkari eta
gainerako ekitaldien inguruan. Auzoko adinekoek bota zuten
txupinazoa, 106 lagun bildu zituen bazkariaren aitzinetik.

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA

· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondokoak
- Alzheimerre eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Haizea Ziluagak ez du kartzelara joan beharrik izanen

Aldeekin akordioa lortuta, epaiketa bertan behera gelditu da eta 47tik 45ek kartzela zigorra saihestu dute

NEREA ALZURI

«Sentimendu gazi-gozokoekin» itzuli zen irailaren 16an Haizea Ziluaga Madrildik. Egun horretan hastekoa zen 11/13 sumarioko 47 auzipetuen aurkako epaiketa, eta tartean zen Ziluaga. Baina akordioa lortuta etxerako bidea hartu zuten. Handik

bueltan, «kontent» daudela adierazi zion Xorroxin Irratiari, «45 lagunek espetxea saihestea eta hiru hilabeteko epaiketa saihestea» lortu dutelako, baina Arantza Zulueta eta Jon Enparantza ere gogoan izan zituen: «bortz hilabetez espetxera joan beharko dute».

Bertze lau kide izendatuta Guraso Elkarteko junta berri dute

N. ALZURI

Duela bi aste, Guraso Elkarteko junta aldatzeko bozketa egin zuten eskolan. Ohi bezala, junta erdia berri dute eta lau guraso atera ondotik bertze horrenbertze sartu dira. Boto gehien eskuratu dituzten Amaia Apaolaza, Natalia Goñi, Estitxu Iparragirre eta Leti Errandonea izanen dira ondoko bi urteetan gurasoen ordezkari. Eurekin batera joan den urteaz geroztik juntan dauden Yolanda De Ruedak, Maribel Tabernak eta Ali Beizamak segituko dute.

Bi urtez taldean ibili ondotik, berri, Aitziber Alberdi, Aintzane Iturria, Sonia Iturria eta Gurutze Pikabea atera dira.

Jantokia

Hainbat zeregin izaten dira Guraso Elkartean, eta horietako bat, eskolako jantokiaren kudeaketa izaten da. Ikasturte honetan 66 haur geldituko dira eskolan bazkaltzen. Azken urteotan bezala, Maixe Oskoz sukaldariak eta Edurne Iparragirre, Ixabel Lukanbio eta Loli Iraola zaintzaileek osatzen dute jantokiko lantaldea.



HERRI ESKOLA

Eskolako lagunak Zinemaldian eta Albaolan

Joan den irailaren 13an Donostiako Zinemaldira eta Pasaiaiko Albaolara ateraldia egin zuten eskolako lagunek. Lehen Hezkuntzako ikasleak Zinemaldira joan ziren eta DBHkoek Albaola bisitatu zuten. Ez hori bakarrik; DBHkoak Zinemaldiko alfonbra gorrian argazkiak ateratzen ere ibili omen ziren. Azkenik Zurriolako hondartzan elkartu ziren guztiak.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

LARRETXE A EGYRRAK
Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra
Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
probextu
aukerak!



Arduro

5 DESKONTUA
arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

boxkikak
KIROL ETA MODAKO
ETIKETA DENDA

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30etik gorako
dekorazio gailetan

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

GAELA
Tatu, Maquillage, Arteak...

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50etik gora.
Promozioetan ezik

Pio Baroja, 11 beheko | Bera
T. 666 42 61 96

ALZURI
ELEKTRIZITATEA

%5 DESKONTUA
etxetresnetan
promozioetan ezik

Bititiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
DISEÑO Y OROZKO

%10 DESKONTUA
hamar saloko
bonoan

Itzea, 20 beheko | BERA
T. 607 85 32 08

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamioietan
%10 Inprimatu
lanetan
%5 Kopla, enbuesamendua eta
plastifikazioetan 3400k gailu
* Aurrekontutik kanpo

Ezlegara, 26 esk. beheko | BERA
T. 948 63 15 21

LESAKAKO
UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

Urdu Bera
DISEÑO Y OROZKO

%20 DESKONTUA
urteko abonarean
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARRA
KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan
%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

ZK zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kortagoria

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

ZU lorendenda
osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30etik gorako
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 beheko | BERA
T. 948 63 12 83

oreka
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

INTZURI
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bititiria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

80 lagun bildu dira Ulibeltzak elkartearen bestan

Beñat Mitxelena akordeoilariak giro ezin hobe jarri zuen eta umore ederrean bazkaldu zuten irailaren 14an

MAIDER PETRIRENA

Ulibeltzak elkarteak besta ospatu zuten irailaren 14an. 80 lagunek izan zuten aukera bazkari eta arratsalde eder batez gozatzeko Beñat Mitxelena Danborien akordeoilariaren musika eta giroarekin. Giro ezin hobe izan zen elkarteko besta eder honetan. Eskerrik asko Santamaria jatetxeari, Beñat Mitxeleneri, antolakuntzari eta bertaratutako guztiei.



Beñat Mitxelena akordeoia astintzen.
MAIDER PETRIRENA



Giro ederra izan zuten Ulibeltzak elkartearen. MAIDER PETRIRENA GOROSTERRAZU

Argazkilaritza ikastaroa eskainiko dute urrian

TTIPI-TTAPA

Reflex argazki-kamerak erabiltzen ikasteko oinarritzko ikastaro teoriko-praktikoa eskainiko dute urrian. Hiru klase teoriko eta praktikoa izanen dira: urriaren 3an, 10ean eta 17an oharrak hartu ondotik, hilaren 24an ikasitakoa

martxan paratzeko aukera izanen dute. 17:30etik 20:00etara bilduko dira.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko 646 540786 telefonora (Iñaki) deitu behar da eta ikastaroa ateratzeko, guttienez zortzi laguneko taldea behar da.



ESKOLAK UTZIA

Bederatzi haur lehen aldiz eskolara

Ikasturtea hasi zuten eskolan irailaren 6an. Lehen aldiz hasi direnak Saioa Anzizar Inbuluzketa, Laia Mariezkurrena Arrieta, Martxel Ibarra Lanz, Ariane Napal Ibarra, Amane Muñoz Arretxea, Janire Karrikaburu Martin, Izei Irazoki Arroyo, Izarne Agesta Petrirena eta Oihan Mikto Iriarte Georgiev dira.



AMETS INDA GORRIARAN

Jubilotekan ere hasiak dira lanean

Herriko Jubilotekan ere irailaren 21ean hasi zuten ikasturtea. Argazkian ikusi daitekeen bezala, kuadrila ederra elkartzen da astearte eta ortzegunero, 10:00etatik 12:30 bitarte, udaletxeko hirugarren solairuan, denbora-tarte eder bat pasatzeko Ramoni Ordoki psikologoarekin.



LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDETEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDETEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Mendi Abesbatza, irailaren 7an Cascanten egin zen Abesbatzen Jaialdian. UTZITAKO ARGAZKIA

Moreno-Torroba omenduko du Mendi Abesbatzak

Urriaren 11n eskainiko du emanaldia elizan, abesbatzaren sorreraren 25. urteurrena ospatzen hasi den ikasturtean

MARGA ERDOZAIN

Mendi Abesbatzako kideek aurtengoan ere goiz eta indartsu hasi dute ikasturtea. Uztailean Gorliz aldean ibili ziren, XXV. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdian parte hartzen eta irailaren 7an, Cascan-

tera joan ziren, Abesbatzen Jaialdian abestera.

Irailaren 21ean erreperitorioa erabat aldatuta, Xabierko Auditorioan, Errioxako Orkestrarekin eta Burlatako San Andres Abesbatzarekin batera, Buenaventura Iñiguez zangotza-

rraren 8 Ahotsetarako Meza eta Aurelio Sagasetaren *Agur Maria* kantatu zuten.

Moreno Torrobari omenaldia urriaren 11n elizan

Urriaren 11n, ortziralean, 20:00etan Doneztebeko elizan emanaldi berezia eskainiko du Mendi Abesbatzak, Raquel Del Val pianojolearen laguntzaz. Nafarroako Abesbatzen Elkarteak urrezko domina emanen dio Federiko Moreno-Torroba Larreglari.

Lan handia eginda, gogotsu ekin dio ikasturteari Mendi Abesbatzak. Aurten 25 urte beteko ditu eta bertze zenbait ekitaldi antolatuko dituzte.

Ipuin Txokoa urriaren 8an hasiko da Haizea Loriarekin

Aurten ere, eta zortzi hilabetez, ipuin eta musikaz gozatzeko aukera izanen da Haizea Loriarekin. Hitzordua asteartetan liburutegian 11:00etan. Animatu guraso, atautxi- amaxi, osaba-izeba zuen ttikiekin gure alfonbra koloredunean margian murgiltzera.

Mendi Txiki Abesbatzak hasi du 2019-20 ikasturtea

Irailaren 27an familiekin izandako solasaldiarekin abiatu zen Mendi Txiki abesbatzaren ikasturte berria. LHko 1., 2. eta 3. mailako artistek ortziraleroko hitzordua 18:15ean izanen dute; LHko 4., 5. eta 6. mailakoek, berriz, egun berean 19:30ean. Bertze aldetik, hirugarren urtez, gaita eta atabala ikastaroa egingen da azarotik aitzinera. Udalak bultzatutako ekimen honetan parte hartzeko matrikulazio epea zabaldu da. Interesatuak 659 37 99 17 (Leire) telefonora deitzen ahal dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Besta ttikiak handiak izan dira aurten ere

Handi-handia izan da Burrumba taldeak egin duen lana, handia besta ttikien egitaraua eta sortarazi duten ilusia; elkarlanak hori baitakar. Zorionak herritar guztien izenean. Hori bai, pena handia ere sentitu dugu herrian izan diren txikizioak ikusita. Horiek amorrua eta ezintasuna sortu dute.

Bruselako Transpoesie olerki jaialdian parte hartu du Luis Gardek

M. ERDOZAIN

Bruselan egin den *Transpoesie* olerki jaialdian parte hartu du herriko Luis Garde idazleak. Irailaren 26n, Europako Hizkuntzen Egunean gure poetaren testuak entzungai izan ziren. Bere poesia ere ikusgai izan zen garraio publikoetan. 22 herrialdeko idazleek parte hartu dute, beraien jatorrizko hizkuntzetan poemak entzuteko (frantsesez, ingelesez eta nederlanderaz itzulita). Aurtengo edizioan lau hitzordu garrantzitsu izan dira eta lehendabiziko egunetan Gar-



Luis Garde Bruselan izan da.

dek parte hartu zuen. Luisekin batera Jan Škrob poeta txekiarra; Liv Maria Róadóttir J'Éger, Feroe Uhartetako artista eta Frisiako Elmar Kuiper aritu ziren, bertzeak bertze.



Larunbat goizean artisauek postuak paratuko dituzte. IZASKUN ZUBIALDE

Euskara plazara ateratzeko festa eguna urriaren 12an

Ostiralean pintxo-lehiaketa, mus txapelketa eta Hor dun koxka! taldearen kontzertua izanen dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Herriaren oinarria hizkuntza delako eta hizkuntzak herria behar duelako, beste urte batez, Euskararen Eguna ospatuko dute herrian. Gazteek, Udalaren eta gurasoen laguntzaz, ekitaldi saila prestatu dute. Egun handia urriaren 12a, izanen da; baina ostiraletik giroa sumatuko da.

Urriak 11, ostirala

Arratsaldean Udalak antolatutako mikro-ipuin eta ilustrazio lehiaketaren II. edizioa sari-banaketa izanen dute eta, segidan, gaztetxoak Ameli ipuin-kontalariaren eskutik, istorio goxoetan murgilduko dira. Istorio goxoak entzunez batzuk, plater gozoak probatuz besteak. Halaxe ibiliko dira. Izan ere, 19:00etan, ohi bezala, pintxo-lehiaketa izanen dute. 22:00etan mus txapelketan bilduko dira. Afalondoan, Hor dun koxka! taldeak giroa giroa du plaza bazterra.

Urriak 12, larunbata

Goiz osoan artisauek izanen dira herrian. Postuz postuko bueltan apustua egiteko au-

kera ere eskainiko dute. Izan ere, azken urteetan bezala, gazteek urdaiazpikoaren eta gaztaren pisua asmatzeko txokoa paratuko dute. Goiz erdian, 11:00 aldera, gazteen artean, herri-kirolak jokatu dituzte. Kirolariei Kukai dantza-taldeko kideek hartuko diete lekukoa. 12:00etan dute hitzordua. Ondotik, 14:30 aldera, Azpeitiko trikitilariak alaitutako kantu-bazkaria izanen dute. 17:00etan Pontx pailazoaren bueltan bilduko dira eta emanaldiaz gozatu ondotik, 18:00etan merienda izanen dute. 19:30etik 22:00etara Elektrotxufla elektrotxaranga izanen da eta segidan, 22:30etik 00:00etara Mugalarriak taldearen kontzertua. Oharkabe taldearen eskutik, gaua luzatzeko aukerarik ez dute falta izanen.

Bazkarirako txartelak

Bazkarira joan nahi dutenek Herriko Ostatuan edo okindegian eman beharko dute izena, asteazkena baino lehen. Txartelak 30 eurotan daude salgai (haurrendako menua 12 eurotan).



IZASKUN ZUBIALDE

Mende bateko historia plazaratu dute

Plazaren mendeurrena ospatzeko, festa eguna izan zuten irailaren 14an. Txistulariak, erraldoiak, buruhandiak, bertsolariak, pilota partidak, aizkora ikuskizuna... izan zituzten. Paella jatean 100 lagun inguru bildu ziren. Dantzariak, joaldunek eta musikariak giroa zuten plaza.

Mikro-ipuin eta ilustrazio lehiaketarako lanak urriaren 9ra arte aurkez daitezke

FERMIN ETXEKOLONEA

Udalak antolatutako ilustrazio eta mikro-ipuin lehiaketari esker, irudimena lantzeko eta sormena garatzeko aukera ederra dute haur eta gaztetxoek. Ilustrazioak 9 urtetik beheitikoek aurkez ditzakete eta 'Euskaraz bizi nahi dut!'

ipuina oinarri hartuta egin beharko dituzte. Mikro-ipuin lehiaketan, berriz, 10 urte edo gehiago dituztenek parte hartu ahal izanen dute. Parte-hartzaileek lanak aurkezteko goitizena paratu beharko diete. Urriaren 9ra arte jasoko dituzte udaletxean.



Sunbilla · Tel: 948 450 862

Adimen emozionala lantzeko ikastaroa Aurtitzen

60 orduko formakuntza teoriko-praktikoa eskainiko dute urriaren 19an hasita

ARKAITZ MINDEGIA

2019/2020 ikasturtean, adimen emozionala lantzeko ikastaroa eskainiko dute Abarun aterpean. Donna Apellaniz Nietok, magisteritzan diplomatuak, adimen emozionalaren hezikuntzan aditua eta terapeuta sistemikoak, eskainiko du ikastaroa eta nork bere burua ezagutzeko; emozioak ulertu eta kudeatzen ikasteko; inguruan gertatzen denaren jabe egiteko; harremanak sendotzeko; gatazkei irtenbide osasungarriak bilatzen ikasteko; beharrei bere tokia emateko;

eta norbere bizitza eta ingurunea nahi den bezalakoa izateko estrategiak jorratuko dituzte bortz asteburuz. 60 orduko formakuntza teoriko-praktikoa izanen da eta urriaren 19ko asteburuan abiatuko dute. Azaroaren 23an eta 24an, abenduaren 14an eta 15ean, urtarrilaren 11n eta 12an eta otsailaren 22an eta 23an bilduko dira.

Formakuntza teoriko-praktikoa, otorduak eta ostatu hartzea 1.000 euro ordaindu beharko dira eta aterpera deituz eman daiteke izena.

Malerreka Kantuz egitasmoa urriaren 5ean herrian

Udako atsedeenaren ondotik, zintzurak berotzeko tenorea ailegatu zaie malerrekarrei. Heldu den larunbatean, urriaren 5ean, berrabiaratuko dute Malerreka Kantuz egitasmoa. Ohi bezala, herriko plazan bilduko dira 12:00etan eta karrikaz karrika ibiliko dira.



Karrikaz karrika ibiliko dira.

Eskola eraikitze lanak esleitu dituzte dagoeneko

Fermin Osés eraikuntza enpresak hartu du Pulunpa eskola berria eraikitze lanen ardura. Lanek guztira 1.771.400 euroko aurrekontua dute eta laster hasiko direla jakinarazi dute. Ea pixkanaka-pixkanaka aurrerapenak ikusten hasten garen!

Bertso-afaria larunbatean elkartean

Urriaren 5ean, larunbatean, bertso-afaria izanen dute Aurtizko elkartean. Lizarralde eta Zubeldiaren ahotsak eta doinuak izanen dira protagonistak. Saio berezia izanen da. Izan ere, Beñat akordeoilaria izanen dute lagun. Bertsozaleentzat hitzordu polita!



MARIA LARRETxea eta MAIDER PETRIRENA

Joare kolpeen erritmora

Joaldunen hitzordu handia izan zuten irailaren 21ean. Goizean, joare hotsek eta trikitixa-pandero doinuek girotu zuten herria. Ameztiko baserrietan barrena ibili ondotik, herrira itzuli eta bazkarian bildu ziren. Salaberrik girotu zuen herria.

Herriko bertsolariak Bertsokabi Eugenio Arraiza sariketan

ARKAITZ MINDEGIA

Urriko lehendabiziko hiru ortzegunetan, hilaren 3an, 10ean eta 17an, jokatuko dira II. Bertsokabi sariketaren kanporaketak. Bertan Nafarroako 18 bertsolari gaztek bikoteka parte hartuko dute. Horien artean izanen dira, Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu, herriko bertsolariak.

Urriaren 10ean Iruñean

Bata zein bertzea urriaren 10ean arituko dira Iruñeko Zabaldin 19:00etan. Alazne Untxalok Irati Majuelo izanen

du lagun; Iker Gorosterrazuk, berriz, Ekain Alegre. Ez dira eskualdeko parte-hartzaile bakarrak izanen. Izan ere, Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoien bertan izanen da eta Beñat Astizekin ariko da. Hiru saioetako txapeldunak urriaren 24an Iruñeko Herriko ospatuko den finalera sailkatuko dira. Joan den urtean izan zen lehendabiziko Bertsokabi sariketako txapeldunak Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu herritarrak izan ziren. Ea aurten ere txapela ekartzen duten!



Hainbat ariketa eta solasaldi izaten dituzte jubilotekan. UTZITAKO ARGAZKIA

Jubiloteka hasi da Doneztebe, Sunbilla, Zubieta eta Ezkurran

Ramoni Ordoki arduradunaren erranetan, «denbora-tarte goxo eta aberasgarria jende artean pasatzea da asmoa»

TTIPI-TTAPA

Ramoni Ordoki lesakarra gidari dutela, irailean jubilotekarekin hasi dira Donezteben, Zubietan, Sunbilla eta Ezkurran. Donezteben astelehenean eta ortziraletan 10:00etatik 12:30era, Sunbilla asteartetan eta ortziraletan 10:00etatik 12:30era, Zubietan asteartetan 16:00etatik 18:30era eta Ezkurran asteazkenetan 10:00etatik 12:30era eta ortzegunetan 16:00etatik 18:30era biltzen dira.

Bi ordu eta erdi hauetan hainbat gauza egiten dituzte: ariketa fisikoak (gorputza ahal

den neurrian mugitu), kafetxo hartu eta solastatu, ariketa kognitiboak egin (arreta eta oroimena landu ahal den neurrian, bakoitzaren egoera kontutan hartuta), mandala eta jokoak egin. Ramoni Ordokik aipatu digunez, «denbora-tarte goxo eta aberasgarria jende artean pasatzea da asmoa».

Iazko ikasturteko martxa polita hartuta, gogotsu hasi dute aurtengoa ere gure adinekoek eta nahi duten guztientzat atea zabaltzeko. «animatu, ederki pasako duzue eta!»

Errekako emakume korrikalariak asteazkenero

Errekako Emakume Korrikalarien Taldea (EKT) hasi da lanean. Aurten ere astean behin elkartuko dira kirolaz gozatzeko. Hitzordua asteazkenetan, 20:00etan Doneztebeko kiroldegian izanen da. Parte hartzeko gonbita egin diete neska-emakume guztiei.

Udal hauteskundeak azaroaren 17an egingen dituzte

Maiatzeko udal hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez zen eskualdeko sei herrietan izanen dute bigarren aukera azaroan: Elgorriagan, Eratsunen eta Ezkurran mugitzen hasiak omen dira; Urrozen, Iturenen eta Oizen, ordea, leerro hauek idazterakoan ez.



JUAN MARI ONDIKOL

Oizko gazteak txapelkun laxoan

Oizko Xuban Illarregi, Mikel Mikelarena, Aimar Ariztegi eta Uxue Illarregi, txapelketako neska bakarra, izan dira txapelkun Baztan-Errekako gazte mailako laxoa txapelketan. Irailaren 14ko finalean 9-3 irabazi zioten Doneztebe Bri. Laugarren urtez segidan irabazi du Oizko taldeak.

THAT'S ENGLISH!

Urrutiko ingeles ikastaro ofiziala

182€

*matrikula tasa osagarria sartu gabe

Matrikulazioa: urriak 31 arte

Doneztebeko Mendaurre Institutuan · T. 848430990

ERRESKATATU INGELESA

SOS! HEMEN DAGO SALBATUKO ZAITUEN URRUTIKO INGELES IKASTARO OFIZIALA

Ingelesa erreskatzeko material didaktikoa
Matrikulan sartuta daude:
Testuliburuak / Audioak / Bideoak / Tutoretzak
e-learning plataformarako eta gure app-erako sarbideak

NORAEZEAN EGOTEARI UTZIKO DIOZU

1. Hizkuntza Eskola Ofizialeko A2, B1 eta B2 lortu.
2. Material didaktiko guztia, tutoretzak eta on-line plataforma 182€, gehi matrikula tasa osagarriak.
3. Deskontu bereziak.
4. Tutoretza presentzialak (ez nahitaezkoak).
5. Ikus-entzunezko 3.000 baliabide baino gehiago eskuragarri.
6. Doako APP-a.

Josu Inziartek irabazi du Bertizko argazki lehiaketa

103 lanen artean Oronozko argazkilariak epaimahaiaren saria jaso du eta Daniel Andionek bisitariena

TTIPI-TTAPA

Ate Irekien Eguna ospatu zuten irailaren 14an Bertizko Natur Parkean. Jende andana ibili zen, eguraldi bikaina aprobetxatuz eta hainbat ekitalditan parte hartu zuten: landaredi exotikoa kentzen, berunezko beirateen tailer teoriko-praktikoan, Harri(d)urako Amaia Sanchezekin... Eguerdian eta arratsaldean lorategi historiko-artistikoan bisita antzetzua ere izan zuten, Berako Emaiza antzerki taldearekin. Aipatzekoa da egun horretan, lorategirako sarrera


doan izan zela egun osoan eta argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa ere izan zuten.

103 argazki lehiaketara

Argazki lehiaketara aurkeztutako 103 lanak ikusteaz gain, sari-banaketa ere egin zuten. Epaimahaiaren saria Oronozko Josu Inziartek irabazi zuen, *Euri tantak* argazkiarekin eta bisitarien saria Paternaingo Daniel Andionek, *Bertiz 2.0* argazkiarekin. Orokorrean, maila handiko argazkiak aurkeztu dira lehiaketara.



Josu Inziarteren 'Euri tantak' lanak irabazi zuen epaimahaiaren saria. J. INZIARTE



Paternaingo Daniel Andionen 'Bertiz 2.0', bisitarien saria. DANIEL ANDION



PROMOCIONES

MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)

Sunbillan
neurrira egindako
etxebizitzak



**AUKERA
BIKAINA!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**Denek 3 logela,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garaieak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren arabera finantziatzea,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Eskualdeko bederatzi bertsolari Bertsokabi Sariketan

Urriaren 3tik 24ra jokatu da sariketa eta guztira 18 bertsolari gaztek parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Duela bi urte abiatutako bi-deari jarraiki, Nafarroako Bertsozale Elkartek Bertsokabi-Eugenio Arraiza Sariketa antolatu du aurten ere, Iruñeko Udalaren eta Euskokultur Fundazioaren laguntzarekin. 2017an sariketak izandako arrakasta ikusita antolatu dute bigarren, eta ortzegun honetan, urriak 3, hasi eta 24an bukatuko da. Guztira, lau saio izanen dira, hiru kanporaketa eta finala, Iruñeko gune informaletan jokatu direnak, eta 15 eta 30 urte bitarteko 18 bertsolari ariko dira kantari, bikoteka. 18 bertsolari horietatik erdiak eskualdekoak izanen dira: Ekhiñe Zapiain beratarra, Josu Sanjurjo lesakarra, Xabat Illarregi leizarra, Iker Gorosterrazu iturendarra, Alazne Untxalo iturendarra, Amaia Elizagoien Oronoz-Mugairkoa, Joanes Illarregi leizarra, Etxahun Azkarraga etxalartarra eta Patxi Castillo beratarra.

Terminal ostatuan, Zabaldin eta Mendillorriko Antzara gunean jokatu dituzte hiru kanporaketak, urriaren 3an,

10ean eta 17an, hurrenez hurren. Kanporaketa bakoitzean hiru bikotek parte hartuko dute eta saioa irabazten duen bikotea zuzenean sailkatuko da urriaren 24an Herriko Tabernan izanen den finalera.

1. kanporaketa urriaren 3an

Ekhiñe Zapiainek eta Josu Sanjurjok bikotea osatuko dute eta eurekin batera, Ainara Iregi eta Saioa Alkaizak osatutako bikotea eta Aitor Irastorza eta Xabat Illarregik osatua ariko dira urriaren 3an Iruñeko Terminal ostatuan jokatu den kanporaketan. 19:00etan hasiko da saioa.

2. kanporaketa urriaren 10ean

Hiru bikote hauek ariko dira urriaren 10ean Zabaldin 19:00etan hasiko den hitzorduan: Ekain Alegre-Iker Gorosterrazu, Irati Majuelo-Alazne Untxalo eta Beñat Astiz-Amaia Elizagoien.

3. kanporaketa urriaren 17an

Mendillorriko Antzara gunean jokatu dute sariketako hirugarren eta azken kanpora-



Bertsokabi sariketan parte hartuko duten bertsolari gazteak.

keta. 19:00etan hasita hiru bikote hauek nor baino nor ariko dira: Mikel Lasarte-Sarai Robles, Endika Legarra-Joanes Illarregi eta Etxahun Azkarraga-Patxi Castillo.

Bertsolari gazteen akuilu

Sariketak bertsolari gazteei trebatzeko eta jende aitzinean kantatzeko aukera ematea du xede, baita Iruñerriko publikoa eta bereziki gazteak, bertsozaleen ere. Aldi berean, Eugenio Arraiza (Iruñea, 1936-2015) zenaren figurari gorazarre egin nahi dio Nafarroako Bertsozale Elkartek. Ikertzaile eta eragile nekaezina, kulturetzaren eta euskalgintzaren alor ugartan aritu zen Arraiza.

Ez da, ordea, Bertsozale Elkartek Nafarroan gazteentzat antolatzen duen sariketa bakarra. Txandaka, bi sariketa nagusi izaten dira: Izeta Sariketa Elizondan, Mariano Ize-taren omenez, eta Bertsokabi-Eugenio Arraiza Sariketa, orain bi urte hasitakoa, ordu-ra arte Goizuetan egiten zen Xalto Sariketaren ordez.

Bertsozale Elkartearen arabera, sariketa hauek «akuilu dira herrialdeko bertsolari gazteentzat, haien bertsogintzan sakontzeko eta publiko aitzinean trebatzeko». Horrekin batera, «gerora Nafarroan plazarik plaza ibilitako bertsolari aunitzek lehenbiziko urratsak gazteentzako sariketetan eman dituztela» adierazi du.

Argazki-lehiaketa antolatu du aurten ere Lesakako Beti Gazte elkarteak

TTIPI-TTAPA LESAKA

Lesakako Beti Gazte elkarteak argazki-lehiaketa antolatu du, udalaren laguntzarekin. Lanak urriaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira Beti Gazte elkartearen (Beheko Plaza 9, 31770 Lesaka), lehiaketan ohiakoa den sistema erabiliz.

Paperean egindako argazkiak aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo kolorean eta digitalki manipulatu gabeak. Argazkiekin batera, CD bat bidaliko da, aurkezturiko argazkiak edukiko dituen, JPEG formatoan, 300 pppko gutti-neko bereizmenarekin. Egile

bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezten ahal ditu eta berak erabakiko du argazkiaren neurria, nahiz eta horietako bakoitzak gehienez 30x40 zentimetroko kartulinan jarri egon beharko duen.

Lau sari emanen ditu Beti Gazte elkarteak. Lehenbiziko saria, 350 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrena 250 euro eta trofeoa. Gainera, herriko egileen artean argazkirik one-

nari 200 euro eta trofeoa emanen zaio eta 200 euroko sari berezia izanen da kirol argazkirik onenarentzat.

Antolatzaileek izendatuko duten epaimahaiak azaroaren 9an emanen du erabakia eta egun berean hasita, azaroaren 9tik abenduaren 2ra, erakusketak izanen da Beti Gazte elkartearen egoitzan. Egile bakoitzak bakarrik sari bat eskuratu ahal izanen du.



Errotaldea | ELGORRIAGA
Tel. : +34 948 45 60 45
reservas@balnearioelgorriaga.com
www.balnearioelgorriaga.com



Igerilekura edo jatetxera joateko eta tratamenduak jasotzeko ez duzu ostatu hartu behar izanen.

Hamar urte zurekin, zuretzat lanean

Malerrekako bihotzean, 2009an ireki zituen ateak Elgorriagako bainuetxeak. Hasieratik bisitarien ongizatea izan du helburu eta horretarako, eskaintza zabala biltzen du. Elgorriagako ur gaziaren onurak sentitu, tratamendu edo masajeekin gorputza goxatu, ingurune paregabearen atseden hartu edota otordu bikain bat dastatu.

Zentzumen guztiekin gozatzen diren esperientziak.

Elgorriagako uraren onurak

Elgorriagako bainuetxeko ura Europako ur sendagarri gaziena da. Berezkoak dituen kloruro eta sodio kantitateari esker da hori. 1816an hasi ziren iturburu honetako gatz eskuratzeko ura lurruntzen, baina beranduago jabetu ziren zuen senda-efektuaz. 1919an izendatu zituzten erabilera publikorako eta geroztik, milaka bisitari izan dira ibilbide termala egin eta bere onurak sentitu dituztenak:

- Efektu antiinflamatorioak eta erlaxatzaileak.
- Kartilago articularra eta mugikortasuna bere onera ekarri.
- Baskularizazioa, irrigazioa eta larruazala hobetu.

Tratamenduak eta masajeak

Gorputza zaintzeko tarte bat hartu, eguneroko tentsioak alboratu, oinazeak arindu... asko dira tratamendu bat egin edo masajeak hartzeko arrazoiak.

Jar zaitezte profesionalen eskuetan!

- **Hileroko masaje eskaintzak.** Urrian ezta eta txokolate zuria baliatuz egindako masaje nutritiboa.
- **Gorputzerako tratamenduak:** oliba olio eta bainuetxeko gatz erabiliz egindako peeling-ak.
- **Aurpegirako tratamenduak:** kabiarr- eta urre-erritualak.
- **Erlaxatzeko edo kontrakturak askatzeko masajeak.**
- **Fisioterapeuta** astean bi egunez.

OPARI-TXARTELAK



ESKAINNTZA BEREZIA
Ibilbide termala + otordua



OTORDUAK

Jan-edanik ere ez zaizu faltako, kafetegian eta jatetxean behar duzuna aurkituko duzu eta.

- **Kafetegi-zerbitzua 10:00etatik 22:30era.** Aukera zabala eta berrikuntza anitz: hanbursesak, ogitartekoak, errazioak...
- **Buffet jatetxea.**
- **Gela pribatuak alokatzeko aukera:** familiarteko bazkarietarako, banketeetarako, enpresa-bileretarako, jaunartzeetarako, bataioetarako...

Berrikuntzak esku-ohatzeetan



- **Senso:** kolagenoa estimulatzeko ur-ohatzeak.
- **Vivaldi:** bibrazio-musikalak, aromaterapia eta kromoterapia uztatzen dituen eta zirkulazioa hobetzen duten ohatzeak.

PRODUKTU KOSMETIKOAK

Elgorriagako ura erabiliz egindako xaboiak, kremak...





Moda gehigarria 2019

ILE-APAINDEGIAK

Oinarria ona bada azken emaitza hobea izanen da

Edertasun naturalaren
kulturarekin kontzientziatuak!



- Kolorazio naturalak (lokatzak)
- Eskuetako eta hanketako bioterapia
- Kolore semipermanenteak
- Ilikeo, gorputzeko eta aurpegiko tratamenduak
- Makillajea

MAIALEN APEZETXEA
Kale Nagusia 51 · T. 686 830 222
f Kiribil.ileapaindegia

Azala eta ilea zaintzerako orduan garrantzia handia du erabiltzen den produktuak. Profesionalek bada-kite hori eta horregatik, kimikoak ahalik eta gehien baztertu eta lehengai naturalen aldeko joera nagusitzen ari da. Gainera, larruazal eta ile bakoitzak behar bereziak dituenez, garrantzitsua da profesionalen aholkuak kontuan hartzea. Soilik horrela lor daiteke ile-mozketa, tindatze, makillaje sesio edo tratamendu bati benetako etekina ateratzea.

**Produktu kimikoak
ahalik eta gehien
baztertu eta lehengai
naturalen aldeko joera
nagusitzen ari da.**

Orrazkerak

Gizonezkoetan hiru aukera gailenduko dira: hagitz motza, pixka bat luzexea-goa eta irregularra. Emakumeetan *pixie*a mantenduko da. *Lob* mozketa, udaberrian baino motza-goa izanen da ilea sorbaldaren gainetik moztuz. Berrikuntza kopeta-ilea gehitzea izanen da: luzea eta irekia eramateko. Kapak ere boladan daude bolumena eta mugimendua gehituz midi-melenei.

Makillajea

Ausartenentzat, begi-itzal biziak, laranja, horia, korala edo arrosa proposatu dituzte. Makillaje monokromatikoak dira bertze aukera: begi, masail eta ezpainak tonu berarekin margotuz.



Parrokia, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

EMAKUMEAK

Iturri zaharretik edaten duen ur berria

Moda ziklikoa dela erran liteke; berte hamarkada batzuetan eramaten ziren jantziak berrituta baitatoz bueltan. Udazken-negu honetarako 70, 80 eta 90eko hamarkadak izan dira inspirazio iturri. Panazko alkandora eta galtzak tendentzia izanen dira, baita artilezko jertseak eta larrua ere. Laukidun jaka bati ere ezinbertzean egin beharko diogu tokia armairuan eta bi piezako janzkiak, alkandora gardenak, soineko loredun luzeak eta midi gonak ere proposatu dituzte diseinatzaileek.

Neurria, zure esku

Janzkera osatzeko lore edota harritxoak dituzten belarritako handiak, lepoko zapiak, artilezko txapelak... izanen dira aukeran. Poltsetan ez da erdi-bidekorik izanen: XXL edo XXS tamainakoak eta ehun naturalak (larrua eta antea) konbinatuz.

Lur koloreak, mostaza, berdea, urdin bizi-bizia, gorria, arrosa eta korala daude boladan baita 'animal printa' ere.



Maite moda
arropa eta osagarriak

Maite Moda

T. 948 450 727
Kale Nagusia, 4 behea
DONEZTEBE

T. 948 450 317 · Doneztebe
Ameztia ibilbidea 5 behea
info@zigzagmoda.com

**Moda
Estiloa
Joerak**

KAPRITXO

Opariak
Bitxiak
Nesken arropa
Mutilen arropa

**NEURRI
HAUNDIAK
ERE BAI**

markak WAIPAI
CENSURED · LOIS
CABANA · DASNE
PRONTO MODA

T. 619 45 02 49 | LEITZA

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

MODA eta OSAGARRIAK
Behar duzun guztia!

@amayacentro

Ameztia DONEZTEBE · T. 948 450 163

IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 • Doneztebe
948 450 463

LARUNBAT ARRATSALDETAN IREKIA

B-KARO Pimbalina mayoral 3 pommes kiriki media infantil tuc tuc

HAURRAK

Etxeko ttikienak ere, handienen pare

Zer ikusi, hura ikasi erran ohi da eta moda kontuetan ere, geroz eta es-tuagoa da helduen eta haurren jantzien arteko aldea. 60, 70 eta 80ko hamarkadetako ukitua duten puntuzko berokiak, *denima*, panazko petoak, artilezko txanoak... daude boladan. Mostaza izanen da denboraldiko koloretako bat eta grisarekin, urdinarekin edo lur tonuekin konbinatuta argitasuna lortzen da. Alkandora, polo edo top txuriak ere ezinbertzeak izanen dira baita anima-lien irudiak edo *animal printa* duten jantziak ere. Mutilentzat poltsikodun galtza zuzenak eta neskentzat orkatiletan gomak dituztenak proposatu dituzte.



GIZONEZKOAK

Deus ez delako betiko, grisa beltzaren ordezk

Dotorezia aipatzean, beltza datorkigu gehienoi burura, baina, badirudi grisak hartu duela bere tokia. Jantzki, jaka, alkandora, jertse eta osaga-rietan denboraldiko kolore izarra izanen da. Grisaren tonaltateak kon-binatuta edo kolore ilunekin, apustu segurua da.

Laukiak ere ezin aipatu gabe utzi, batez ere alkandoretan. *Punk* edo *errebelde* kutsukoak edota *british* eta *dotoreak*, lauki ttikiekin edo handiekin, denboraldiko koloretan (gorria, berdea eta urdina) aurkituko dituzue. Lepoaldean artilea duten jakak, diseinua berrituta heldu diren *bomberrak* eta *denima* ere tendentzia dira.



MERCHE MODA NOVIOS

RAMON SANJURJO
ROY ROBSON
FUENTECAPALA

Serapio Múgica, 11 • 20302 IRUN
Tel.: 943 612 626

www.capelettimercheirun.com



URRIAREN 12tik AZARORAREN 12ra

MID SEASON SALE

-%20

3 artikulu edo gehiago
erosiz gero *

-%15

2 artikulu erosiz
gero*

* Fideitasun txartelarekin. Eskatu gure dendetan txartela, doakoa da eta momentuan emango dizugu. Txartelarik gabe -%15 eta -%10eko deskontua.

VENTABIOK.COM

BIOK

IBARDIN
DANTXARINEA
ARNEGÍ



KIROLA

Azken tendentziak soinean baita kirola egitean ere

Kirola eta modaren arteko harremana geroz eta es-
tuagoa dela erran daiteke. Badira, kiroldegiak mo-
daren erakusleho bihurtu direla diotenak eta egia
erran, bistakoa da, jendeak kirola egiterako orduan
geroz eta gehiago erreparatzen diola soinean daramanari.
Gainera, duela guttira arte kirol-arropatzat jotzen genuena
egunerokoan tokia irabazten ari da.

Modako joerak

Kirolari izan edo ez, mezuak dituzten
kirol-jertse eta kamisetak ezinbertze-
koak izanen dira, algodoizkoak badira
aunitzez hobe. Goiko zatiak eta galtzak
kolore eta ehun berekoak izatea pro-
posatzen dute. Gardentasunak bola-
dan daude baita bizkaralde bereziak
dituzten kamisetak ere. Udazkenari
keinu eginez, berenjena, mostaza,
grisa eta berde iluna izanen dira den-
boraldiko koloreak baita loreak, irudi
abstraktuak eta diseinu minimalistak ere. Oinetako teknikoe-
tan kolore biziak nagusituko dira eta *sneaker*-etan milaka au-
kera izanen dituzue, janzkera formal edo informalagoekin bat
datozenak.

***Puntako teknologia,
ehun naturalak eta
material berriztaga-
rriak baliatzen dituzte
diseinatzaileek.***

S
salomon

THE
NORTH
FACE

LA SPORTIVA

MILLET

maspormenos

TERNUA

Timberland

asics

NIKE


axular

Merkataritza-Parkea
1. solairua
Dantxarinea

www.maspormenos.net

Deskontua
%50

**1000 artikulua
baino gehiagotan**



Zatoz Venta Peiora moda ezagutzera

3 POMMES ABSORBA ADIDAS AMERICAN TOURISTER ARMANI EXCHANGE BENZI BELLOSTA MORLANS BMSAK CALVIN KLEIN CHAMPION COLUMBIA CONVERSE DELSEY DESIGUAL DOCKERS EA7 EASTPAK ELLESSE ESPRIT G-STAR FILA FJALL RAVEN HACKETT HAVAIANAS HELLY HANSEN HILFINGER DENIM IKKS IPANEMA ICEPEAK JACKS&JONES JOMA KAPORAL KAPPA LACOSTE LACOSTE LIVE LAFUMA LEE LEGO WEAR LE TEMPS DES CERISES LEVIS LEVIS KIDS LOLLIPOPS MANGO MERRELL MILLET NAPAPIJRI NEW BALANCE NEW ERA NORTON ODLO ONLY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PROMISE RALPH LAUREN REEBOK RIP CURL SAMSONITE SELECTED SKECHERS SUPERDRY SURKANA TEVA THE NORTH FACE TOMMY HILFINGER TRANGOWORLD UMBRO VANS VERO MODA VILA VIOLETA BY MANGO WRANGLER

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel: +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin



Italiako bidaia hagitz gustagarria izan da elkarteko kideentzat

Elkarteko kide aunitzek joan nahi zutela ikusirik, bi taldetan egin zuten bidaia

PABLO IRASTORTZA

Hagitz gustagarria izan zen Italian astebete pasatzeko egin zuten proposamena. Guztira 98 lagunek eman zuten izena, eta hori ikusirik, denok bisitatu ahal izateko, bi taldetan banatzea erabaki zuten. Irailaren 20tik 27ra 53 lagun joan ziren; 27tik urriaren 4ra arte, berriz, bertze 39 lagun.

Guztiek iparraldeko lakuak, Milan, Venezia, Dolomitak eta inguruko parajeak ezagutzeko aukera izan zuten. Hurrengo zenbakian bilduko ditugu berta ateratako argazkiak.

Pirinioak eta Benidorm

Batzuk Italian zeuden bitartean bertzeak Piriniotan ibili dira. Asteartean joan ziren eta ortzegunean itzultzekoak ziren. Irailaren 30ean Benidormera joan zirenak oporretan daude



Milango katedrala.

oraindik eta urriaren 13an, igandean, itzuliko dira.

Hurrengo Bazkideen Egunean

Urri hondarrean, hilaren 24an, izanen dute hilabete honetako azken hitzordua. Urtero bezala, Bazkideen Eguna ospatuko dute. Egun osoko ateraldia izanen prest dute dagoeneko: goizean omenaldia, sari-banaketa, ondotik bazkaria eta akitzeko musika izanen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Egun-pasa ederra Lezokoa

Lezon egun-pasa ederraz gozatu zuten 145 lagunek. Ongi gosalduta eta indarberrituta, meza aditu eta harri-jasotze erakustaldiaz zein aizkora apustuaz gozatu zuten. Oartzunen bazkaria izan zuten eta Aitor Lesaga musikari gaztearen erritmoak markatu zituen beso eta hanken mugimenduak.

Mari Kruz Azkarate izanen da Zugarramurdiko ordezkari

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteko zugarramurdien irailaren 17an, asteartean, egindako bileran hemendik aitzinera elkarteko ordezkaria Kruz Azkarate izanen dela adostu zuten. Orain, beraz, berak kudeatuko ditu herriko bazkideen kontuak.

Lerro hauen bidez, elkarteko kide guztien izenean, eskerrak bai Mari Kruzi, berriki hartu duen karguagatik; baita Joxe Irazoki Etxenikeri, orain artean egindako lan guztia txukun egiteagatik: «zorte on biei eta mila esker zuen ekarpenagatik!».



P. IRASTORTZA

53 mendizale Saioara egindako mendi-irteeran

Hilabetero bezala, irailaren 17an, mendizaleek ateraldia egin zuten. 53 lagun bildu ziren eta Belateko aparkalekutik Saioara joan ziren. Tontorrean Juan Antonio etxalartarraren ezpain-soinuak lagun, dantzan ibili ziren eta, buelta egin ondotik, bazkaria izan zuten. Bazkalondan, Tomas Erbitiren musikak mendian nekatu gabeko hankak dantzarazi zituen.

Indarkeria sexistari buruz ikasitakoa irudikatzeko murala margotu dute

Maisueneako atarian, aurrez aurre dauden bi otsoren marrazkia egin dute



Marrazkiak erabil dituzte sentimenduak irudikatzeko. ARGAZKIAK: O. KALPARSORO

OHIANA KALPARSORO

Indakeria sexistaren gaian egiteko asko dagoela ikusita, jardunaldi bat egin zuten udan. *Educando la emoción* proiektuko Donna Apellaniz Nieto gonbidatu zuten eta emozioak nola azaleratzen diren aztertu zuten animaliak antzetzuz. Ondoren bizitakoa marrazki azkarretan islatu zuten. Gogoetarako tartea ere izan zuten, Aranon zer nolako harremanak eraiki nahi dituzten hausnartu eta horretarako elkarbizitzan sentimenduak onartu eta kudeatu behar direla ondorioztatu zuten.

Donna dinamizatzaileak *Bi otsoak* ipuina kontatu zuen jardunaldia amaitzeko. Istorio honek gure barrenean bi otso ditugula dio. Bata maltzurra, koldarra da, inbidia, beldurra, amorrua eta antzeko sentimenduak biltzen dituen otsoa. Bestea bakea, lasaitasuna, laguntasuna, maitasuna, empatia, eskuzabaltasuna, errukia edo egiarena. Donnak azaldu zenez: «bi otso hauek etengabeko borrokan dabilta gure barrenean eta guk gehien elikatzen duenak irabaziko du borroka».

Ipuina kontuan izanda, Alaiondo estudioko kideek herritarren laguntzarekin mural bat margotu dute berriki Maisueneako sarreran. Aurrez aurre dauden bi otso irudikatu dituzte. Horrela jardunaldian landutako elkarbizitzarako ideiak luzaroan oroitzeko aukera izango dute herritarrek Maisuenea aurretik pasatzen diren bakoitzean.

eta hau ere?

bai

Aseguruen inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

Etxe Automobila Istripuak Bizitza Ehorzketa

CAJA RURAL SEGUROS RGA
Professional Cycling Team

DENA SEGUURUAGOA DA HURBIL BAZAUDE

RURAL KUTXA
caja.rural@segurosrga.es

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoak C-595. Etxe, istripu, Ehorzketa eta Merkataritza aseguruak RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.683 eta DGSFPko gakoak C-616. Automobil aseguruak honako hauen kontratatzen dira: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoak C-0467); Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoak C-0613); Mapfre España (IFK A-28141935 eta DGSFPko gakoak C-0058). Aseguruak RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculado, S.A. ren bitartez merkaturatzen dira (IFK: A79490264). Madrilen du helbidea (C/Basauri, 14) eta DGSFPren bitartekariaren erregistroan inskribatuta dago 07-0006 gakoarekin, baita Madrilgo Merkataritza Erregistroan ere, 6205. liburukoan, 89. folioan, 8. sekzioan, M10188 orrian. Rural Kutxa RGA Mediación OBSV, S.A. ren banaketa sareko kide da. Helbide honetan kontsultatu dezazazu zer aseguru eretxeekin dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf



Irumaita txarangako musikariek parte hartuko dute. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Umore Onaren atalen eguna prest urriaren 13rako

Abesbatzako kideek, dantza taldekoek eta txarangak emanaldiak eskainiko dituzte herrian zehar

TTIPI-TTAPA

Urriko bigarren igandean festa egun handia izanen dute herrian, Umore Onaren atalen egunaren harira. 11:00etan emanen diete hasiera festari, orduan aterako baitira Madalenatik Irumaita txarangako musikariak eta elkarteak atalako ordezkariak. 11:30ean

pilota partidak jokatu dituzte Umore Onako pilotariek eta ondoren, Umore Ona Abesbatzak, dantza taldeak eta txarangak emanaldiak eskainiko dituzte herrian zehar. 14:00etan bazkaritarako bilduko dira eta gero dantzaldia izanen dute Ganddegiko Luiten eskutik.

Udaletxean igogailua jartzeko lanak hasiak dituzte

TTIPI-TTAPA

Udal bulego eta aretoetara iristea errazagoa izanen da laister, egun hauetan hasiak baitira Herriko Etxean igogailua jartzeko obrak. Igogailu honek udal bulegoetara, batzar aretora eta ganbarara irigarritasuna bermatuko du, orain arteko zailtasunak saihestuz.

Biok Pro eta eraikuntzak SL herriko enpresak egingen ditu lanak eta bi hilabete eta erdian luzatuko direla aurreikusi dute. Igogailua jartzeak 90.221,58 euroko kostua du, baina %75eko dirulaguntza jasoa du

proiektuak. Obrak irauten duen bitartean aldaketak izanen dira udal bulegoetan, baina zerbitzuak normaltasunez eskainiko dira.

Lan horietaz gain, dagoeneko martxan dira eskolako kaldera gela berritzeko lanak ere. Hauek Ingasca SL enpresaren gain daude eta, zuzenbidean, urrian zehar bukatzea espero dute. 72.645 euroko kostua dute, eta hauetatik 52.772,85 euro dirulaguntza bidez jasoko dira. Lanek irauten duten bitartean, eskolan ez dute ur berorik izanen.



Lantaldeko kideetako batzuk. UTZITAKOA

Lehen sektorea bultzatzeko lantaldea sortu dute

TTIPI-TTAPA

Elikadura burujabetza landu, bertako produktuak suspertu eta bestelako kontsumo eredu bat sustatzeko asmoz taldetxo bat martxan jarria da. Udaleko eta Cederna Garalur elkarteak ordezkariak eta hainbat herritar bildu dira (argazkian partaideetako batzuk).

Irailaren 13an elkartu ziren lehenbiziko aldiz, eta oraingoan, lehen sektorearen egoera eza-gutzeko inkestak pasatzen hasiak dira. Inkesta horien erantzunak bildu eta informazioa lehenbiziko sektorea dinamizatu eta herriarentzat plan estrategiko bat egiteko erabiliko dute.

Pixkanaka ur hornidurako arazoak konpontzen ari dira

TTIPI-TTIPA

Azken hilabeteetan hainbat ur-mozketa egin behar izan dira gauez, deposituak bete bai, baina berehala husten zirelako. Irailean hainbat zulaketa egin dira hoditerian egon zitezkeen ur-ihesak detektatu eta konpontzeko, eta

dagoeneko hiru ur-ihesak edo fuga konpondu dira Kale Nagusia eta Santa Maria kaleetan. Lanek aurrera segituko badute ere, badirudi deposituak beterik mantentzen direla eta, momentuz behintzat, ez dela erreka urik sartu edo mozketarik egin beharko.

Autoenplegua sustatzeko dirulaguntza deialdia

Norberaren konturako enplegua sustatzeko dirulaguntza deialdia onartu du Udalak. 2017ko urriaren 1etik jarduerak ekonomikoen gaineko zergan altan emanak dauden bizilagunek egin dezakete eskaera, urriaren 1etik 30era Udaletxean.

'Emakumeen Lurra' dokumentala eta solasaldia 25ean

Emakume baserritarren egunarekin lotuta, *Emakumeen Lurra* dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia antolatuko dituzte urriaren 25erako. Berdintasun batzordeak eta Mugarik Gabe Nafarroak antolatuta, 19:00etan hasiko da emanaldia.

'Dakienak ez dakienari erakutsi' tailerra urriaren 17an

Hondakin kopurua murrizteko jendearen ohiturak aldaraztea da saio hauen helburua

TTIPI-TTAPA

Hondakin murrizketa eta berrerabilpena indartzeko asmoz, *Dakienak ez dakienari erakutsi* tailerrak egingo dituzte herrian. Mendialdea Mankomunitateak antolatu ditu eta bi saio izango dira, lehenbizikoa urriaren 17an.

Hondakinak hondakin izan aurretik, jendearen ohiturak aldaraztea da helburua. Auzo-lanean oinarrituko dira eta tailerraren izenburuak argi dion moduan, dakienak ez dakienari erakutsiz, elkarrekin ikastea da asmoa. Batzuen eta besteen bizipenak eta ideiak bildu nahi dituzte eta guztien artean eskulan edo tailer praktikolari eskainiko diote denbora tarte handiena.

Lehendabiziko saioan, plastikoen erabilera murrizteko irtenbideak bilatzea izango da

helburua. Erosketak plastikorik sortu gabe nola egin, nola antolatu gure erosketak horretarako prestatuak ez dauden saltokietan eta egunerokoan plastikoa ekiditeko zer egin daitekeen landuko dute.

Bigarren saioa aurrerago

Aurrerago bigarren saio bat ere egingo dute eta xehetasunak lehendabiziko saioan adostuko dituzte denen artean. Oinarrian berrerabiltze, berrreskuratze eta zaharberritze tailer irekia izango da. Hala, etxean hondakin izateko zorian dauden zerbaitu aukera berri bat ematen saiatuko dira, elkarri lagunduz eta bakoitzak duen jakintza besteekin konpartituz. Altzari txikiren bat, kartoizko, kristalezko, plastikozko zerbait, ohial zatiren bat, olio zikina... berrerabiliz.

Argazkilaritza ikastaroak eskainiko ditu Bakartxo Anizek herrian

TTIPI-TTAPA

Argazkilaritza digitalaren inguruan gehiago ikasi nahi dutenek aukera izango dute herrian bertan. Bakartxo Anizek, herrian bizi den argazkilaria profesionalak, ikastaroak eskainiko ditu-eta. Asteburuetan izango dira, 14 orduko iraupena izango dute eta alderdi teorikoa eta praktikoa landuko dituzte. Hasiberriei edota kamara reflex bat eduki eta gehiago ikasi nahi dutenei zuzendutako ikastaroak izango dira eta izena ematen dutenen mailaren arabera osa-



20 urteko esperientzia du Bakartxok.

tuko ditu taldeak, gehienez ere, sei bat pertsonakoak.

Ikastaroen inguruko informazio gehiago eskuratu nahi duenak Bakartxorekin jarri beharko du harremanetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Leitzako Talo Eguna lagunartean

Leitzako Talo Eguna, arratsalde pasa polit bat egiteko aitzakia ederra izan zen Guraso Elkarteko hainbat haur eta gurasorentzat. Oinez joan ziren Plazaolan barna eta Irrintzi Lehiaketa ikusi ondotik, atzera oinez egin zuten buelta. Ongi irabazi zuten elkartean jan zuten bokadiloa.

Idazkaria eta herri-lanetarako langilea kontratatze prozedurak martxan

TTIPI-TTAPA

Udalak herri-lanetarako langilea eta idazkaria kontratatze prozedurak martxan jarri ditu. Hau idazterako orduan xehetasun batzuk oraindik lotzekoak zituzten eta horregatik interesa duenak udaletxera jo beharko du informazio eske.

Dena den, badira aurreratu dituzten hainbat kontu: herri-langile postua gutxienez urtebeterako izango da, egungo langileak eszedentzia eskatu duelako. Idazkaria hartze prozedura deialdiarekin berri,

Amaia lanera itzuli arteko aldia osatu eta etorkizuneko lan-poltsa osatu nahi dute.

Garbitzailea nor izango den erabaki dute

Bestalde, hautaketa prozesua bukatuta, Udalak jakinarazi du Maitane Uranga arduratuko dela aurrerantzean udalarenak diren eraikinak garbitzeaz: eskola, udaletxeko bi solairuak eta osasun zentroa garbitu beharko ditu. Autonomo bezala ariko da lanean Udalari garbitzaile zerbitzua eskainiz.

'Baratze kritikoa' erakusketa 18tik 31ra

Emakume baserritarren egunaren harira, erakusketa antolatu du Berditasun Batzordeak eta Mugarik Gabe Nafarroak. Urriaren 18tik 31ra egonen da ikusgai elikadura burujabetzaren gaiari genero ikuspegitik heltzen dion erakusketa.

Egur loteen zerbitzuarekin arazoak

Atzeratzen ari da egur loteen banaketa eta Udalak zergatia azaldu nahi izan die herritarrei: «Jon Goena enpresak egur loteen zerbitzua emateko konpromisoa hartua du aspalditik baina, Udalak behin eta berriz deitu arren, ez dira herrira etorri eta loteak botatzen hasi».

Inoiz baino lehenago heldu da aurten Mikologialdia

Urriaren 10ean hitzaldia, 12an onddo eta perretxiko bila ateraldia eta 13an pesta handia izanen dituzte

JM BARRIOLA

Urriaren 10etik 13ra ospatuko dute Mikologialdiaren 13. edizioa. Egun handia igandean izanen da eta urtero bezalaxe, plazan jarriko duten onddo eta perretxikoen erakusketa izanen da hitzorduaren bereizgarria. Plaza eta karrapea apaintzeko, gaztetxoek eskolan egindako eskulanak eta marrazkiak erabiliko dituzte eta tailerrak, pintxoak... ere ez dira faltako. Bezperan, urriaren 12an, mendi-irteera egingen dute erakusketarako aleak biltzeko. 09:30ean plazan egin dute hitzordua eta saillkapena arratsaldean egingen dute. Norbaitek bere aldetik biltzea egin eta perretxiko eta onddoak eraman nahi baditu, 12an eraman beharko lituzke karrapera. Egitarraraua osatzeko urriaren



Eskulanekin apainduko dute plaza.

10ean Ultzamako onddo barrutiaren inguruko azalpenak emanen ditu Garrapo taldeak eta ostalariek ere onddo eta perretxikoei pintxoak prestatuko dituzte asteburuan.



UTZITAKOA

800 pertsonak bisitatu zuten paper-fabrika

Irailaren 21ean ate-irekien jardunaldia egin zuten Torras paper-fabrian. Handia izan zen sortu zen ikusmina, 800 bisitari jasoz. Lantegia osorik ezagutu, garai bateko argazki eta bideoak ikusi... eta 60 urte bete dituen lantegian egin dituzten azken berrikuntzak ikusteko aukera izan zuten bisitariek.



ARGAZIAK: E. IRAOLA

Taloak bezain pesta borobila

Talo egunaren hamabosgarren edizioa ospatu zuten irailaren 22an. Herriko talogileak, artisauen postuak, erraldoi eta buruhaundien konpartsa... osagai asko izan zituen pestak. Talo eta irrintzi lehiaketa ere egin zituzten eta azken honetan inoizko parte-hartze handiena izan zen.

'Musika sortu, nahasi eta zabaltzeko aplikazioak' ikastaroa urriaren 4an

TTPI-TTAPA

Makala DJ ezagunak eskainiko du ikastaroa, urriko lehen ostiralean, 18:00etatik 20:00etara. Liburutegian izanen da eta hamalau urtetik gorakoei zuzendua da. Mugikorrek, tabletek eta antzeko gailuek eskaintzen dituzten musika-aplikazio berriekin ariko dira modu erraz, intuitibo eta dibertigarrian. Musika sortzea, nahastea eta, azkenik, zabaltzea izanen da helburua. Parte hartzeko ez da beharrezkoa musika ezagupen edo ikasketa berezirik edukitzea.



Dohainik izanen da ikastaroa

Izena emateko epea urriaren 2an bukatuko da. laga@iparmank.eus helbidera, izen-abizenak eta telefono zenbakia adieraziz, eta musika-aplikazioak aipatuz.



Aurrerako dantzariak saioa eskainiko dute 12:00etan. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urriaren 5ean ospatuko dute XIII. Aurrera Eguna

1988an Aurreraren alde eginiko aizkora jaialdian parte hartu zutenei omenaldia egingen diete eguerdian

TTIPI-TTAPA

Urriko aurreneko larunbatean, ospatuko dute Aurrera Elkar-teko egun handia. XIII. edizioa izanen da aurtengoa eta kirolerako, dantzarako eta pestarako tarte hartzearekin batera, elkar-tearen alde 1988an antolatu zuten aizkora jaialdian parte hartu zutenak omentzeko baliatuko dute hitzordua.

Goizean, 08:30ean Aurrerako Mendibil mendi taldekoak plazan bilduko dira Kornietara igotzeko. 09:00etan txistulariek diana joko dute eta 10:00etan Aurrerako kirol jokoen eskutik futbito partida

izanen da plazan. 11:00etatik 13:00etara haurrentzako zaldi ibilaldiak antolatu dituzte plazainguruan eta ordu berean, pilota-eskolako pilotarien partidak hasiko dira plazan. Dantza-taldearen txanda izanen da gero. 12:00etatik aurrera, haur, gazte eta helduek emanaldia eskainiko dute.

Omenaldia

Incansables txarangarekin poteoan aritzeko aukera izanen da 13:00etatik aurrera eta ordu berean, esker oneko ekitaldia egitekoa dute Aurrera Elkar-tean. 1988an Aurreraren alde

egindako aizkora jaialdian parte hartu zutenei omenaldia eskaini nahi diete. Auzolanaren beharra izan zen jaialdi hura antolatzeko eta orain, lagunartean bilduta adierazi nahi diete esker ona. Gero, 14:30ean karrapean bilduko dira bazkaritarako. Mariskoz beteriko piper beteak, otarrainxkak baratxuri erara, penka beteak onddo saltsan, risottoa, erredondoa saltsan, sorbetea eta goxua izanen dituzte. Txartelak Torrean eta Peritzan egonen dira salgai urriaren 3ra arte (bazkideek 23 euro eta bazkide ez direnen bikoteek 28).

Bazkalondoan, espartzinak jantzi eta Ingurutzua dantzatuko dute bazkideek. Ondoren Incansables txaranga aterako da kalera eta buruhaundiekin kalejira egingen dute. Indarrak hartzeko luntxa izanen dute gero Aurreran eta pestarekin jarraitzeko Joxe Mendizabalek musika-saioa eskainiko du Aurrerako atarian.

Emakume baserritarren topaketa 15ean

Emakume Baserritarren Egunarekin lotuta, topaketak antolatu dituzte urriaren 15ean Berdintasun Batzordeak eta Bertatik Bertarak. Udaletxean bilduko dira 16:00etatik 19:00etara. Izen-ematea urriaren 1 arte zabalik, 674 086 926 eta 948 510 840ra deituta.

Borobila izan da igerilekuko denboraldia

Irailean igerilekuko denboraldia bukatuta, balantzea egin dute Anikote kiroldegiko arduradunek. Pozik daude, 659 bono saldu zituzten eta udaldian, batez ere ekainean eta uztailean, jende asko ibili eta ikastaroetan ere hainbat talde osatu dituztela aipatu dute.



Igerilekuko 659 bono saldu dituzte.



PASSIVHAUSS ETXEAK LEITZAN

- Babesturiko etxebizitzaren salmenta zuzena.
- Hiru logelako azkeneko bi etxebizitzak salgai.

Informazioa eta erreserbak: 609 130 555

'Zahartzaroan ere osasuntsu' tailerrak urri bukaeran

Gaztelaraz izanen dira lantegiak, dohainik, baina, aurrez izena ematea beharrezkoa da

TTIPI-TTAPA

60 urtetik gorako pertsonen zuzendutako lantegiak antolatzen dituzte urri bukaerarako. Zehazki, urriaren 22an, 24an, 29an eta 31n izanen dira lantegiak. Jubilatuen egoitzan bilduko dira 16:30etik 18:30era.

Antolatzaileek azaldu duteenez, parte-hartzaileek gure bizipenez mintza- tzeko, gure ezaupideak zabaltzeko, eztabaida- tzeko, kasuak aztertze-ko, ariketak egiteko, etab. Alderdi batzuk talde txi- kietan landuko ditugu, eta beste batzuk guztiok elkarrekin.

Adinekoen eskola lantegien baitan egingen dituzte tailerrak eta zahartzaroan ere osasuntsu egoteko hainbat arlo landuko dituzte:

Urriaren 22ko saioan, zahartzearekin loturiko egoerez eta bizipenez solastuko dute. Ari-

keta fisikoaren garrantziaz hitz egin eta zahartze prozesuaz zertan datzan eta zer aldaketak dakartzan landuko dute.

Urriaren 24an, gorputzaren zaintzaren gainean jarriko dute arreta: eragiten diguten faktoreak, geure burua zaintzeko erak, gorputza zaintzea....

Urriaren 29an, gure gogoa eta gure emozioak zaintzearen garrantziaz ariko dira. Norbere burua zaintzeko irtenbideak eta neurri horiek egiaz hartzeko gaitasunak garatzeko aholkuak jasoko dituzte bertaratzen direnek.

Urriaren 31ko saioan gure harremanez eta ingurua zaintzeaz eta haiek hobetzeko aukerabideak aztertzeaz ariko dira eta norberaren plana osatuko dute.

Antolatzaileek lau saioetara joatea gomendatu dute.



UTZITAKOA

Arkaitz Nieve azkarrena pentatloian

Irailaren 21ean egin zuten 29. pentatloia. 40 lagunek parte hartu zuten. 09:30ean itsasoan sartuz eman zioten hasiera probari eta bizikletan eta korrika saioa egin ondotik, 13:30ean iritsi zen aurreneko parte-hartzailea helmugara. Aurrera atarian bazkaldu eta parranda ordu txikiak arte luzatu zuten.



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Jende asko azokan pagotxen bila

Pagotxen bila, asko izan ziren iraileko bigarren asteburuan Leitza-ko plazara hurbildu zirenak. Hala azaldu zuten XI. Stock azoka antolatu zuten Kaxkabeltza elkarte-ko kideek: «oso gustura gaude jendearen erantzuna ikusita». Juan Mari Zabaletak irabazi zuen merkatariek zozketatutako saskia.

Autokontsumo energetikoari buruzko hitzaldia antolatu dute urriaren 7rako

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur elkarteak antolatuta, 'Nafarroa Zirkularra' ekimenaren barrenean, hiru hitzaldi antolatu dituzte, tartean Leitza-koa, urriaren 7an. Apirilean onartu zuten 15/2018 EDk autokontsumo kolektiboa sustatzeko berri-

kuntzak biltzen ditu eta horien gainean hitz egingen dute, eta adibide praktikoe-kin, partikularrei, enpresei eta toki-erakundeei nolako onurak ekarriko dizkieten azalduko die- te. Izen-ematea 607 679 377ra deitu edo bidaso.aadmon@cederna.es helbidera idatzita.

Ordutegi aldaketa liburutegiko zerbitzuan

Irailaren 16tik aurrera, Leitza-ko liburutegia 14:00etatik 20:00etara irekita egotekoa bazen ere, liburutegia eskatu duenez, ordezkoa etorri arte, liburutegia 18:00etan itxiko dute. Sor daitezkeen eragozpenengatik barkamena eskatu dute.

'Gernika' artelana elkarrekin osatzeko aukera liburutegian

Txoko berria jarri dute liburutegian eta bertan 3.000 pie- zako puzzle osatu gabe bat dago, Pablo Picassoren Gernika artelanaren irudia duena. Nahi duenak piezatxoak koka- tzeko aukera izanen du. Urtea amaitu aurretik ea den- en artean osatzen duten.

Jon Barberena idazlea eta bertsolaria hil da

Ttapi-Ttapa aldizkarirako kolaborazioak egiten zituen 'Nire txanda' atalean

TTAPI-TTAPA

Jon Barberena (Elizondo, 1979) bertsolaria eta idazlea irailaren 12an hil zen. Lanbidez euskara eta literatura irakaslea zen arren, hamaika alorretan ibilia zen. Bertzeak bertze, bertsolaritzan ibilbide oparoa egin zuen. Baztango bertso eskolako kide eta irakasle izan zen; eta Nafarroako Bertsolari Txapelketan txapeldunordea bi aldiz (2007, 2008). Bertso-gintzan ez ezik, literatura-sorkuntzan ibilia zen. *Izoztu zitzaigun negu hura* (2016) poesia-liburua idatzi zuen eta Ttapi-Ttapa eta *Xorroxin Irratiko* kolaboratzailea zen.

Bertsolaria eta idazlea

Baztango bertso eskolako kide eta irakasle izateaz gain, Nafarroako Bertsolari Txapelketan txapeldunorde izan zen bi urtez segidan (2007an eta 2008an). Aitzinetik sariak ere irabaziak zituen: Iruñeko Udalak antolatutako Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan bi aldiz lehendabiziko saria lortu zuen bertso-paperean modalitatean eta lehiaketa berean

bigarren saria eskuratu zuen 2003an, *Euskal Herriko konpota* lanarekin.

Poesia lanetan ere trebea zen. Iaz Mungiako Udalak antolatutako Lauaxeta Olerki Sariak irabazi zuen eta lehendik ere aitortuak ziren bere lanak. Iruñeko Udalak antolatutako Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan bitan sari nagusia irabazi zuen. Duela hiru urte Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak antolatutako Iruñea Hiria I. Nazioarteko Poesia Sariak irabazi zuen, *Izoztu zitzaigun negu hura* lana aurkeztuta. Azken sari hori irabazteari esker, 2016an izenburu bera zuen liburua kaleratu zuen.

Kolaboratzailea

2018ko martxotik Ttapi-Ttapan kolaborazioak egiten zituen, iritzi saileko 'Nire txanda' atalean; eta aitzinetik 'Bota bertsoa' txokoa ere ale ederrak utzi ditu. *Nafarroako Hitza* ere ari zen. *Xorroxin Irratian* ere urte aunitzetan izan da kolaboratzailea, batez ere 'Ttapi-ttapi' iritzi-tartean.



Barberenaren ibilbideko argazkiak eta omenaldikoak. ARTXIBOKOAK ETA F. ANBUSTEGI

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 - F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304
---	---	---



Larunbat eguerdian paella lehiaketa egingen dute. MAITANE MARITORENA

Anizko bestak ortziraletik igandera ospatuko dituzte

Ortziralean, joan-etorria lasai egiteko, herriz herri autobusa ibiliko da

MAITANE MARITORENA

Besta egunez gozatu ahal izateko, aniztarrek auzolana egingen dute asteazkenean eta ortzegunean eta asteburuaz gozatuta, astelehenean garbiketala-ianetarako bilduko dira.

URRIAK 4, ORTZIRALEA

11:00etako ezkilak jo eta altxaferoak botako dituzte, besten hasiera iragartzeko. Herriko musikariak herrian barna ibiliko dira. 11:30ean herri-krosa izanen dute eta 12:00etan frontenis txapelketaren bueltan bilduko dira. 14:00etan bazkari autogestionatua izanen

dute. Bazkalondan, 16:00etan, pala txapelketako finalak jokatuko dituzte. 20:00etan Mutil-dantzak dantzatuta, 21:00etan Baztan zopak janen dituzte. 00:00etatik aitzinera Salaberriren eskutik dantzan ibiltzeko aukera izanen dute. Goizaldean, indarrak berrartzeko, xingar jatea egingen dute. Nahi duenak joan-etorria lasai egiteko aukera izanen du, herriz herri autobusa ibiliko da eta.

URRIAK 5, LARUNBATA

Goizez eta arratsaldez (11:30etik eta 15:30etik aitzinera) puzga-

riak eta josteta tradizionalak izanen dituzte frontoian. 12:00etan paella lehiaketa hasiko dute, bikoteka. Ondotik, egindako paella eta postrea bazkalduko dute. 16:00etan musean bilduko dira eta 19:00etan txokolatea jateko aukera izanen dute. 21:00etako afariaren aitzinetik eta ondotik, Hauspolariek taldeak girotuko du herria. Goizaldean xingarra janen dute.

URRIAK 6, IGANDEA

12:00etan meza izanen dute; ondotik, berriz, bertako produktuekin prestatutako otordua; eta 14:00etan zikiro jatea. 17:00etan bingo txapelketa jokatu ondotik, 19:00etan kantuan ariko dira. Karaokeko parte-hartzaileei Salaberri akordeoilariak hartuko die lekukoa. Xingar jateak ez du hutsik egingen eta suaren bueltan ere kantatzeko aukera izanen dute. Bestak akitzeko herrian barrena karrikaz karrika ibiliko dira.

Elikadura osasuntsu eta jasangarria hizpide Elizondon

Udaleko Kultura Batzordearen eskutik, elikadura osasuntsu, jasangarri eta arduratsua lantzeko aukera izanen dute urrian Elizondon. 16 urtetik goitikoek bideratutako saioak izanen dira eta Amaia Meoki Plazak gidatuko ditu. Astelehen eta ortzegunetan (urriaren 7an, 10ean, 14an, 17an, 21ean, 24an, 28an eta 31n zehazki) bilduko dira, arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara.

Izen-ematea

Tailerretan parte hartu nahi dutenek Arizkunenea kultur etxean eman beharko dute izena. Erroldatuek 48 euro ordaindu beharko dituzte; erroldatu gabeeek, berriz, 64. Eta ikastaroa eskaini ahal izateko gutxienez hamar lagunek eman beharko dute izena. Gehienez ere 15 parte-hartzaile onartuko dira.



Amaia Meokik gidatuko ditu saioak.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
 Dibortzioak, herentziak,
 alokairuak, alkoholemiak...
 T. 948 581 468 | M. 630 354 818
 Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
 TALEK DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Herritarren gozamenerako hamaika ekitaldi izanen dituzte bestetan. ARTXIBOKOA

Gartzaingo bestak urriaren 11tik 14ra ospatuko dituzte

Larunbateko herri-afariaren aitzinetik, 19:00etan Erramun Martikorenak girotuko du herria

TTIPI-TTAPA

Urriaren 11n eguerdiko txupinazoarekin abiatuko dituzte herriko bestak; eta astelehenen afariarekin akitu. Bien bitartean, larunbatean Erramun Martikorenaren kantaldiaz gozatuko dute.

URRIAK 11, ORTZIRALEA

12:00etako txupinazoaren ondotik, 14:00etan haurren bazkaria izanen dute. Bazkalondan, 16:30 aldera, haurrendako jokoak izanen dituzte. Bien bitartean, 16:00etan mus txapelketa jokatu dute. 21:30ean, tradizioari eutsiz,

zopak jateko bilduko dira. Pailin DJaren musika lagun, gaupasa egingen dute eta goizaldean, 06:00etan, xingar jatean bilduko dira.

URRIAK 12, LARUNBATA

Begi bat itxi orduko bertzea irekitzeko tenorea ailegatuko zaie. Izan ere, 10:00etan argi-

OTORDU-TXARTELAK URRIAREN 6A ARTE SALGAI FRANTSENEN ETA SAIOAN

-soinuak izanen dira herrian. Eguerdian Aixtegiko ermitan meza entzunda, luntxean bilduko dira. 19:00etan Erramun Martikorenaren ahotsa izanen da protagonista eta haren oihartzuna gogoan dutela, 22:00etan herri-afaria egingen dute. 00:00etatik aitzinera, Jotaxo DJak girotuko du herria eta goizaldean, 06:00etan, galztontzillo eta kulero lehiaketa egingen dute.

URRIAK 13, IGANDEA

10:00etako argi-soinuen ondotik, herritarren arteko desafioa jokatu dute. 14:00etan zikiri jatean bilduko dira eta ondotik Agerraldek girotuko du herria. Afalondan bestan segitzeko aukera izanen dute.

URRIAK 14, ASTELEHENA

10:00etan argi-soinuak eta 14:00etan gazte-bazkaria izanen dute. 16:30ean jokoetan bilduko dira. Afariarekin eta gaixoa ni abestuz akituko dituzte bestak.

Futbol-zelaia moldatzeko 120.000 euro jasoko dituzte

Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak tokiko entitateek kirol instalazioetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdiaren ebazpena argitaratu du.

1,3 milioi euro

Denera 1.300.010 euro bideratuko dituzte, hamahiru entitatearen artean banatua. Horri esker 14 proiektu garatu ahal izanen dira: bederatzik instalazioetan berrikuntzak egingen dituzte eta bertze bortzek erabilera publikoko igerilekuak egungo arautegira moldatzeko baliatuko dute.

Guztira 220.000 euro

inbertituko ditu futbol-zelaian

Onuradunen artean dago Baztango Udalak. Nafarroako Gobernaren eskutik, 120.000 euroko dirulaguntza eskuratuko du. 2014ko uholdeek hondatutako Giltxaurdi futbol-zelaiko belarra aldatzeko erabiliko dute diru hori. Aipatu behar da Udalak 2019ko aurrekontuetan Giltxaurdi futbol-zelaian egin beharreko lanetarako 220.000 euroko inbertsioa aurreikusia duela; eta Udalak bere gain 70.000 euroko kostua hartuko du.

Tuterako Udalak, Lizarrakoa, Larragakoa, Uhartekoa, Tafallakoa, Arronizkoa eta Cadreitakoa dira dirulaguntza jasoko duten bertze Udalak.

Almandozko Pakita Otxotorenak 101 urte bete ditu

Irailaren 21ean Almandozko Pakita Otxotorenak 101 urte bete zituen. Hori ospatzeko, larunbat goizean herriko abesbatzak kantatu eta oroigarria eman zion. Ondotik, mokadutxo batzuk jan zituzten.





XXXII. lehiaketa-enkantean saritutako abeltzainak, antolatzaile eta sari-emalleekin. ONDIKOL

Behi-azienda piriniotarraren lehiaketa egin dute

30 ganadutegietako 300 azienda-buru aurkeztu dira hogeita hamabigarren edizioa bete duen lehiaketara

TTIPI-TTAPA

Behi-azienda piriniotarraren nazio mailako lehiaketa-enkantea egin zuten irailaren 21ean eta 22an Elizondon. Guztira 30 ganadutegitako 300 azienda aurkeztu zituzten lehiaketara, 17 Nafarroakoak, Bizkaiko eta Gipuzkoako seina, eta Nafarroa Behereko bertze bat. Jendetza ibili zen Elizondon.

Baserritar bakoitzak kategoria bakoitzera bi buru aurkeztu ahal zituen eta lehiaketan parte hartzeko aziendak hamahiru kategoriatan sailkatu zituzten. Horietatik zazpitan Nafarroako ustiategiak nagusi ziren, bortzetan Bizkaikoak eta batean Gipuzkoakoa. Denora, 81 sari banatu zituzten, eta horietatik hamaika bereziak.

Eskualdeko sarituak

Baztango zezenkorik onena Erratzuko Juan Jose Iñarreak aurkeztutakoa izan zen eta behirik onena, Arraiozko Isabel Larnagarena. Arizkongo SC Irigoienek eskuratu zuen ustiategiaren ugalkortasun saria eta Iruritako Angel Mitxelenaren ustiategiak ere ugalkortasun-sari bat eskuratu zuen.

Zozketa

Lehiaketaz eta enkanteaz gain, Nafarroako aretxea dastatzeko aukera izan zen eta zozketak ere egin zituzten. Hauek izan ziren zenbaki saridunak: aretxea, 1.176 zenbakia; Landako Bordan egonakdia, 1.042; Kastonean afaria, 2.664; Baztango Zaporeak lotea, 0171; Kaiku lotea, 1.945.

AZIENDA LEHIAKETA

SARIAK

ZEZENKOAK

12 hilabete arte **Isabel Ibarrola (Azoz)**
12-24 hilabete **Dolaetxea (Oñati)**
2-4 urte **Isabel Ibarrola (Azoz)**
4 urtetik goiti **Isabel Ibarrola (Azoz)**

URRUXAK

8-12 hilabete **Gregorio Iraola (Arraiz)**
12-18 hilabete **J.K. Bikandi (Iurreta)**
18-24 h. **Mª Nela Vittorini (Azoz)**
2-3 urte **Mª Nela Vittorini (Azoz)**
3-4 urte **Gregorio Iraola (Arraiz)**
4-6 urte umatuak **Bikandi (Iurreta)**
6-8 urte umatuak **J.Rekalde (Zeanuri)**
8-12 urte **Bikandi (Iurreta)**
12 urtetik goiti **Bikandi (Iurreta)**

Asier Bilbao (Durango), Jon Koldo Bikandi (Iurreta), Angel Mitxelena (Iruirita), Garikoitz Nazabal (Zaldibia) eta Isabel Ibarrola (Azoz) abeltzainek aurkeztutako behiek irabazi zituzten ugalkortasunari emandako sariak, bakoitzak bere atalean.

Emakumeentzat musikoterapia tailerra Elizondon urritik abendura

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordearen eskutik, urriaren 8tik abenduaren 17ra, asteartetan, 20:00etatik 21:40ra, musikoterapia tailerra eskainiko dute Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Haizea Loirak gidatuko ditu klaseak

eta 16 urtetik goitiko emakumei bideratutako ikastaroa izanen da. Gutierrez sei parte-hartzaile beharko dira eta gehienez hamar. Arizkunenean bertan eman beharko da ize-na eta erroldatuek 48 euro eta erroldatu gabeek 64 ordaindu beharko dituzte.

Kortariko eta Etxelekuko gasnek 2019ko 'Great Taste' sariak irabazi dituzte

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Kortaria gaztandegiko Infernuko Gasnak eta Urdazubiko Etxelekuko Bengoetxea gasnak irabazi dituzte Great Taste 2019 sariak Londresen. Horiekin batera, Euskal Herriko Leze, Beizama eta Aizpea gaztandegikoak ere

sarituak izan dira. Elikagaien alorrean, Oskar sariak bezala izendatuak izan dira Etxelekuko eta Kortariko gasnak. Lehiaketa honen aurtengo edizioan, guztira 12.772 jaki aurkeztu dira eta 500 aditu baino gehiago ibili dira horiek baloratzen.

Helduendako antzerkia ikusgai Iruritan hilaren 13an

'Anton Abadia, Dublinetik Hendaiara' antzezlan ikusgai, Gizarte Bilgunean, 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Anton Abadiaren bizi-bidaia kontatzen duen *Anton Abadia, Dublinetik Hendaiara* lana eskainiko dute Iruritan. Gizarte Bilgunean bilduko dira eta urriaren 13an, igandean, zehaztu dute hitzordua, 19:00etan. Sarrerarik ez da ordaindu beharko.

Lanaren nondik norakoak

Patxo Telleriak idatzi du bakarrizketa eta, haren azaletik, Txomin Heguy aktoreak ohol-

tzaratuko du. Musikari dago-kionez, Xabi Zeberio eta Mixel Ducau bikoteak sortutako soinu bandak osatuko du bakarrizketa. Alaia Phillips Ducauren ahotsa izanen dute lagun.

Hala, kantu bidez irudikatu-ko dituzte Anton Abadiaren bizitzako pasarteak eta musikaren bidez, hainbat herrialde-
detako aireak entzuteko aukera izanen da: Irlanda, Brasil, Frantzia, Zubieroa, Etiopia, Paris... Oier Guillanek zuzendutako lanak 40 minutu inguruko iraupena izanen du.



FREDDY ALFREDO

Dantzarien bueltan, egun ederra Iruritan

Ohiko hitzorduari hutsik egin gabe, Iruritako dantzariak Dantzari Eguna ospatu zuten irailaren 14an. XXVI. edizioa izan zuten eta 50 dantzari inguru bildu ziren. Eguerdian, emanaldi ederra eskaini zuten eta arratsaldean laxoa partidak eta musika izan zituzten.



UTZITAKOAK

Amaiurko besta ttikiak

Uda agurtu eta udazkenari ongietorria besta ttikiekien egin diete amaiurtarrek. Ortziralean Gaztelu elkarteak afaldu zuten eta larunbatean zikiroaren bueltan bildu ziren. Bazkalondoan, Agerralde akordeoilariak girotu zuen herria eta gauean Iratzar taldeari pasatu zion lekukoa.

Autodefentsa tailerra izanen dute urriaren 19an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Feministak «bizitza antiojo moreekin ikusten ikasteko» Feminikasten ekimena antolatu du aurten ere. Hiruhileko honetan, hilero solasaldi, proiektzio, tailer edo erakusketa bat izanen dute Baztanen. Joan den ortziralean, izan zuten lehendabiziko hitzordua, Arizkunenea Kultur Etxean. Bertaratu zirenek *Zauriak* dokumentala ikusteko aukera izan zuten.

Urriaren 19an tailerra

Hurrengo hitzordua autodefentsa tailerra izanen dute. Urriaren 19an, hirugarren larunbatean, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean bilduko dira, goizez zein arratsalde, 10:00etan eta 16:00etan zehazki. Parte-hartu nahi dutenek aitzinetik izena eman behar-



Martxoaren 8an Elizondon.

ko dute baztangohaizefeminista@gmail.com helbidera idatziz.

Azaroan hitzaldia

Azken saioa azaroan izanen dute. 'Euskara eta feminismoa: genealogiatik egungo erronketara' hitzaldiaren bueltan bilduko dira. Saioa Iraola izanen da hizlari eta 19:00etan Baztango Gaztetxean bilduko dira.

Larrazken Kulturala urriaren 7tik 19ra Arizkunen

Egunez sagar biltzeak, jotzeak eta estutzeak egingen dituzte eta ilunabarretan hitzaldiak, kontzertuak eta dastaketak

TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo elkartearen eskutik, Larrazken Kulturala izanen dute ondoko asteetan, urriaren 7tik 19ra zehazki, Arizkunen. Orain artean Kirikoketa Egunaren harira egiten zituzten jarduerak bi astez luzatuko dira eta hainbat jarduera izanen dituzte.



Sagarrak jotzen.

Hitzaldiak, kontzertuak eta dastaketak

Ekitaldi xume bezain ederra antolatu dute: goizean, sagar bilketak, sagar jotzeak eta estutzeak egingen dituzte, herri-

tar eta ikusleei prozesua bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiz. Ilunabarretan, berriz, hitzaldi, kontzertu edota dastaketen bueltan bilduko dira.



MARIA URRUTIA

160 lagun bildu dira Elbeten zikiroan

Irailaren 12ko txupinazoarekin hasi eta 16ko bazkariarekin akitu zituzten bestak. Aitzinetik mus txapelketa jokatu zuten. Miren Galartza eta Iñaki Goñi izan ziren txapeldunak. Txopogoratzak, ikuskizunak, dantzaldiek, karaokeak... ez zuten hutsik egin eta zikiro jatean 160 lagun inguru bildu ziren.



ARANTXA GAMIO

Basaburua Eguna jendetsua izan da Zigan

Irailaren 21ean Basaburua Eguna ospatu zuten Zigan. Goizean, 20 lagun inguru bildu ziren mendi-itzulia egiteko; mus txapelketan 16 bikote aritu ziren eta goizerdian haurrendako jolasak izan zituzten. Eguerdian, pala txapelketako finala jokatu zuten eta segidan bazkarian bildu ziren. 160 lagun elkartu ziren eta Hauspolariek taldeak girotu zuen herria.

Bi herrietako eskolak mantendu dituzte

Zugarramurdi eta Urdazubiren arteko adostasunari esker, DBHko 2. mailara arteko ikasketak herrian egin ditzakete

MARIFA ETA KORO

Eskola ttikiak zaindu behar ditugula bistan da, eta gure bi herrien arteko antolamentua horren adibide bat da. Aspal-dixkoko akordio baten ondorioz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila arte ikasketak Xaretan egitea lortu baita.

Ikastetxe bakarra, bi eraikin

Horretarako, zugarramurdiar eta urdazubiarren arteko adostasuna sinatu beharizan zuten. Gaur egun ikastetxe bakarra dugu (Guraso Elkarre batek eta irakasle talde bakarrak osatua), baina herri bakoitzean eskola bat dago. Hau da, ikastetxeak bi eraikuntza ditu, bata bertetik lau kilometrotara daudenak.

Bi eskolen artean zortzi irakasle eta 43 ikasle dira. Ttikie-



Zugarramurdiko eskola.

nak Zugarramurdin daude, eta gero Urdazubiko eskolara pasatzen dira. Batetik bertzerako joan-etorri hori erraz egiten dute, autobusa baitago.

Ospakizunak

Bertzalde, urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldi bereziak (Eguberrietako besta, ikasturte bukaerakoa...) txandatu egiten dituzte.

'Korrontziren nafar loreak' emanaldia Zugarramurdiko lezean larunbatean

MARIFA ETA KORO

Musika eta dantza uztartzen dituen ordu eta erdi inguruko emanaldi ederraz gozatzeko aukera izanen dute larunbatean Zugarramurdiko lezean. Korrontzi taldearekin batera, Lesakako Musika Bandak eta Berako Gure Txokoa eta Leitzako Aurrera dantza-taldeen parte hartuko dute. 19:00etan dute hitzordua.

Sarrerak

Ikuskizunaz gozatzeko sarre-rak lezean bertan, Berako Agara Prentsan, Lesakako Zialdo



Eskualdeko dantzariak izanen dira.

ostatuan edo online (entradascajarural.com helbidean) eskura daitezke. Informazio gehiago www.turismozugarramurdi.com atarian.



Epaimahaikideak eta coaching lanetan aritu direnak. MARIFA ETA KORO

ETBk eskainiko duen lehiaketa baterako grabaketak egin dituzte Zugarramurdin

MARIFA ETA KORO

Laster ETBk Arimaren margolariak izeneko lehiaketa bat estreinatuko du. Lehiaketa horren parte bat Zugarramurdin grabatu dute, eta irailaren 16an eta 17an herrian barna grabatzen aritu ziren.

Zenbait herritarrek grabaketetan parte hartu zuten: hilaren

16an epaimahai bezala aritu ziren Zugarramurdi eta Urdazubiko hogeita lagun inguru; biharamunean, irailaren 17an, berriz, antzerki taldekoek emanaldi ttiki bat eskaini zuten, margolariak hura ikusi bitartean pinta zezaten. Argazkian parte hartu zuen herritarrek ageri dira.

Atxuria mendi-taldea martxan da berriz ere

Udako atsedenaldiaren ondoren, berriz ibilaldiak hasi ditu Atxuria mendi-taldeak. Irailaren 22an Etxalarrera joan ziren. Lehendabiziko zatian euria eta lainoa izan zituzten lagun, baina bidean zirela eguzkia ateratu zen eta giro ederra izan zuten.



Ibainetako leporako bidean.

Arkupeak elkarteko Zugarramurdiko ordezkariak aldatu dute

TTIPI-TTAPA

Joxe Irazoki Arkupeak elkarteko ordezkari izan da hainbortze urtez, baina orain uztea erabaki du. Hemendik aitzinera, beraz, Gurutxe Azkarateren esku geldituko dira herriko ordezkariari dagozkion ardurak.

Herritarrek orain artean egin-dako lanagatik eskerrak eman dizkiote Joxe Irazokiri; eta aurrerantzean egingen duenagatik Gurutxe Azkarateri. Bide batez, lerro hauen bidez, holutarioen lana behar-beharrezkoa izaten dela adierazi dute.



Buruilaren 16an egin dute bilkura lehengo eta oraingo dantzariekin. P. BASTRES

Zirikolatz elkartearen 40. urteurrena prestatzen hasi dira

Heldu den urteko martxoaren 21ean ekitaldi berezia antolatzeko asmoz, gogoetak egiten hasiak dira

PIERRE BASTRES

1979a baino lehenago, dantza taldea SPUC elkarteke abarra baizik ez zen. Henri Duhauri esker egiazko elkarte bilakatu zen urte hartan, kiroletik bereiz, eta berezko antolakuntzarekin. 40 urte egin ditu, beraz.

Oraingo elkarteke buruzagiei urtemuga hori ahal bezain ederki ospatzea ezinbertzekoa iduritzen zitzaion. Beraz, uste izan zuten biderik hoberena zela Larrekon dantza erakustaldi edo sorkuntza berezia gauzatzea. Zorigaitzez, data bat erreserbatzea arraz zaila da Larrekon, eta ez zen tartarik 2019rako. Honenbertzez, 2020rat gibelatzea deliberatu dute. Maryse Muhr, aspaldiko buruzagietako bat eta oraingo diruzainak zehaztatu duen bezala, «martxoaren 21ean iraganen da ekitaldia, Larrekon, eta gaualdi batekin burutuko dugu, elgarrekin besta eder bat egiteko. Horrez kanpo, gauza ainitzez behar dugu gogoetatu, eta deliberatu. Ezpeletan, adibidez, aurtan ospatu dute bertako elkartearen

sortzea, eta ezinago ederki. Hortik ikasiz, gure bidetik beretik ibili nahi dugu, gure gisan. Bertzalde, baitezpadakoa zitzagun iraganeko dantzariak parte hartzea, eta buruilaren 16an egin dugu elkarretaratzea, berriak partekatzeke, eta aitzinatzeke».

Sebastien Muhrek bilkuran parte hartu du, eta hona zer dioen: «helburua zen iraganeko kideen ikusmoldeen biltzea, jakiteko lehenik zoin dantza eman nahiko genukeen guk, ohizko dantzariak. Bigarrenik, trebatzeko egutegia eta antolakuntza finkatzen hasiak gara: usaia galdu dugulako pixka bat, eta behar dugu berri ikasi! Adiskide ainitz hurbildu dira, eta oraingo gazteak ere hor ziren. Zerbait ederra egiteko asmoa ageri zen, eta ainitzek ideia onak botatu dituzte. Elkarrekin izaitzeko atseginak eta karrak irauten dute beti. Whatsappez solastatzeko guinea ere sortu dugu lotura atxikitzeke eta egin-beharrak betetzeko». Bertze bilkura noiz izanen den bide honen bidez jakinaraziko dute.

Janari soberakinaren aprobetxamendua bultzatzeko 75.000 ontzi banatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako ostatu, jatetxe eta aisia-lokaletako elikadura-aprovetxamendua bultzatzea xede duen *Birron egin / Que reaproveche* ekimena aurkeztu dute. Nafarroako Elikagaiak Alferrik galtzearen aurkako I. Astearen barnean, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak ontzi konpostagarriak banatzeko ekintza hau aurkeztu du, ostatu eta jatetxeetako bezeroek soberan duten janaria etxera eramateko aukera izan dezaten. *Birron egin / Que reaproveche* kanpaina honetan, 75.000 tuper banatuko dira partzuergoan ordezkaturik dauden mankomunitate guztietako bostehun ostalaritza-lokal baino gehiagotan.

Ontziak material kospostagarriz eginda daude, eta behin erabilia, nahi adina aldiz bererabili edo konpostontzira zein bosgarren edukiontzia deritzon zabor organikoaren edukiontzira botatzen ahalko dira.

Tuperrekin batera, lokalek kartoizko kaxak ere banatuko dituzte, ontziak eramateko plastikozko poltsarik erabil ez dadin. Gainera, ekimenari atxikitako jatetxe eta ostatuek menuaren kartak kanpaina honen irudia daraman pegatina batekin aurkeztuko di-

tuzte, bezeroak landutako elikagaien soberakinak aprobetxatzera gonbidatzeko.

Kanpaina joan den astean abiatu zen, Elikagaiak Alferrik galtzearen aurkako I. Asteke jarduerekin bat eginez, eta urtea bukatu arte luzatuko da.

Ekimen honen bitartez, ostalariak nahiz kontsumitzaileak kontzientziatu nahi dira kontsumorako prest dauden baina ezin merkatu daitezkeen elikagaien soberakinak murrizteko beharraz.

Pertsona bakoitzeko urtean 72 kilo janari alferrik

Kalkuluen arabera, Nafarroan urtero, 115.000 tona elikagai baino gehiago botatzen dira zaborrontzira. Kopuru horren %42 etxeei dagokie, eta horren arabera, nafar bakoitzak batez beste 72 kilo janari alferrik galtzen ditu urtero.

Ontziak banatzeko kanpaina hau sustatu duen Hondakinen Partzuergoan Nafarroako Gobernua ordezkaturik dago Lurralde Kohesiorako Departamentuaren bitartez, 15 mankomunitate hauekin batera: Goi Araxes, Baztango Udala, Bidausi, Bortzirriak, Ezka Zaraitzu, Irati, Malerreka, Mairaga, Mendialdea, Jurramendi, Zangoza, Sakana, Goi Erribera, Erribera eta Izarbeibar.



Itziar Gomez kontseilaria, kanpainaren aurkezpenean. NAFARROAKO GOBERNUA



Hainbat ekitaldiren antolaketa aritzen dira Gaztetxeoak, inauterietan ere bai.

Gaztetxearen 30. urteurrena ospatzeko besta urriaren 26an

Bazkaria egiteaz gain, egun horretan hainbat musika taldek kontzertuak eskainiko dituzte gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Arian ari, dagoeneko 30 urte iragan dira herriko gazte kua-drilla bat elkartu eta herrian gaztetxea sortu zutenetik. «Euskal kontzientzia bulkatu eta batzuegan pizteko» sortu zuten eta helburu horrekin eta bertze hainbatekin lanean segitzen dute oraindik ere.

Gaur egun, 16 eta 25 urte bitarteko 15-20 lagunek osatzen dute gaztetxea eta «herriko gazteak biltzeko, herria biziarazteko, euskara sustatu eta plazaratzeko, presoen gaia jorratzeko eta bertze hainbat gai lantzeko» hainbertze ekitaldi antolatzen dituzte urtean zehar. Halaxe azaldu digu gaztetxeo kidea den Leire Fagoaga gazteak. Hala ere, azpimarratu nahi izan du «gaztetxetik pasatutako aitzineko belaunaldiak beti laguntzeko prest» izaten direla.

Ez dira gutti urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldiak. Bertzeak bertze, Urrats Gaia antolatzen dute Herri Urrats bezperan, kontzertuak eta bertze hitzorduak egiten dituzte noiznahi, eta «herriko bertze elkarteekin eta besta

komitearekin ere elkarlanean ari gara». Horren erakusle, bestetako hainbat ekitaldi euren gain hartzen dituztela gaztetxeo kideek.

Aurten, ordea, zerrenda horri bertze bat gehitu diete: gaztetxearen 30. urteurrena ospatzeko urriaren 26an besta eguna antolatu dute.

Bazkaria, kontzertuak eta gehiago

Egun horretan, eguerdian bazkaltzeko elkartuko dira eta ondotik hainbat musika talderen doinuez gozatzeko aukera izanen da: Waxy, BKBO-Fusible, Kiki And The Red Kiketz, Aho Zakil Konexion eta Nina Coyote eta Chico Tornado. Eguna borobiltzeko, sorpresak izanen dituzte.

Kamisetak salgai

30. urteurrenaren kariatara kamisetak ere atera dituzte gaztetxeo lagunek. 15 eurotan salgai paratu dituzte eta nahi duenak Trinketean edota Herriko Etxeko Edantegian eskuratzeko. Gaztetxeo kideen bitartez ere egin daiteke eskaera.

Larunbat honetan besta ttikiak antolatu ditu gazteriak

TTIPI-TTAPA

Aitzineko TTIPI-TTAPA aldizkarian iragarri bezala, larunbat honetan, urriak 5, besta ttikiak ospatuko dituzte, herriko gazteriak antolatuta.

18:00etan esku huska pilota partida jokatu dute. Calve eta Lekuona saratarrak Bere-

terbide eta Valentziaren aurka ariko dira. Pilota partidaren ondotik, 19:00etan, aperitifa eskainiko dute eta 21:00etan herri-afaria hasiko da kiroldegian. Afaltzeko denboran eta afalondoa giroa alaitzeaz Saranga txaranga arduratuko da.



JOSE MARI TELLETXEA

Giro ederra Lizarietan

Saratarren eta etxalartarren arteko hitzarmena berrestearrekin batera, hainbat ekitaldi izan ziren irailaren 22an Lizarietan: artisauen erakusketak, paleta egiteko erakustaldia, botaluzeko partida, karrote botatzeko txapelketa... Bazkaltzeko bildu ziren eguerdian eta animaziorik ere ez zen falta izan.

12 lagunek eman dute izena paxaka ikastaroan

Iparraldeko Pilota Batzordearen eskutik, paxakan jokatzeko ikasteko aukera izanen da herrian. Saran ez ezik, Donapaleun, Milafrangan eta Azkainen ere zabaldu dute eskola eta izena emateko epea finituta, guztira 31 lagun apuntatu dira, horietatik 12 Saran. Joan den igandean, irailak 29, hastekoa zen ikastaroa, eta hemendik aitzinera, bi taldeetan banatuta ariko dira; lehenbiziko taldeak 09:00etatik 10:30era egingen du entrenamendua eta bigarrenak 10:30etik 12:00etara.

4koplasarak hilaren 11n jokatu du Xilabako saioa

Bete-betea du Xilaba Taldeko bertsolari txapelketa eta herritarrek ere hortxe dabilta. Ligaxkako bi saioak finitu ditu Karlos Aizpuruaren Ezkorbrutak taldeak, Hazparden lehenbizikoa hilaren 21ean eta 28an Saran. Ellande Alfarok, Amets Arzallusek, Julene Etxeberrik eta Laida Etxeberrik osatzen duten 4koplasara taldeak, berriaz, irailaren 28an etxean egin zuen saioaren ondotik, urriaren 11n jokatu du ligaxkako bigarren saioa, Amenduzeko Eiheran bertso-afaria egingen du Eskukula taldearekin.



Gazteen laxoa txapelketako lau talde onenak, antolatzaile eta laguntzaileekin, sariak banatu ondotik. JUAN MARI ONDIKOL

Oizek irabazi du aurten ere gazteen Laxoa txapelketa

Irailaren 14an Iruritan jokaturako finalean 9-3 irabazi zion Doneztebe Bri eta laugarren txapela du segidan

TTIPI-TTAPA IRURITA

Laugarren urtez segidan Oizek jantzi du Baztan-Errekako gazte mailako laxoa txapelketako txapela. Irailaren 14an Iruritan jokaturako finalean 9-3 irabazi zion Doneztebe Bri.

Oizko taldean Xuban Illarregi, Mikel Mikelarena, Aimar Ariztegi eta Uxue Illarregi, txapelketako neska bakarra aritu ziren eta erraz irabazi zieten Doneztebe Bko David Mitxeo, Urko Oiarzabal, Erik Garcia eta Eneko Maylin-i.

Irurita B hirugarren

Aitzinetik, hirugarren posturako lehia jokatu zuten. Hau finala baino estuagoa izan zen eta etxekoek, Irurita Bk (Jon Sagaseta, Hodei Aleman Ariz Bikondo eta Julen Urreaga), 9-7 irabazi zieten Doneztebe Cri (Oier Apezetxea, Markel Jabalera, Ander Ruiz eta Julen Pikabea). Malerrekakoak 5-7 irabazten izan ziren, baina markagailuari buelta eman zioten baztandarrek.

Sari banaketan, Laxoa Elkarteko ordezkariekin batera, Oihane Prim Iruritako alkatea eta Jesus Mari Porron, Nafarroako Pilota Elkarteko presidente ordea izan ziren.

Oinatz Bengoetxea da eskualdeko pilotari bakarra lau eta erdikoan

TTIPI-TTAPA LEITZA

Aimar Olaizolak uko egin dio txapelketan parte hartzeari eta Julen Retegi ere ez da ariko, «erabaki teknikoaren» ondorioz. Hortaz, Oinatz Bengoetxea leitzarra izanen da eskualdeko ordezkari bakarra asteburu honetan hasiko den lau eta erdiaren barreneko pilota txapelketan. Serie-burua izaki, final-laurdenetako ligaxkan hasiko da, gaur egungo txapelduna den Ezkurdiaren kontra urriaren 12an Lekunberrin. Beraien multzoan, Elezkano II.a eta Lasoren arteko partidaren irabazlea eta Artola eta Peio Etxeberriaren artekoaren irabazlea izanen dira. Finalerdiak azaroaren 2an eta 3an jokatu dituzte eta finala azaroaren 17an Iruñeko Navarra Arena pilotalekuan.

Bertze multzoko serie-buruak Altuna III.a eta Urrutikoetxea dira eta Irribarria-Victor eta Bakaikoa-Jaka partidaren irabazleak sartuko dira final laurdenetako ligaxkan.



AITOR AROTZENA

140 lagun mendi bizikletan Lesakan

Beti Gazte elkarteak antolatuta, bizikleta-itzulia egin zuten irailaren 15ean Lesakan. 140 txirrindularik parte hartu zuten eta 40 eta 25 kilometroko ibilbideak izan zituzten aukeran, 1.400 eta 910 metroko desnibelarekin. Eguraldi ederra lagun, aparteko gorabeherarik gabe egin zituzten ibilbideak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazte sokatira taldearen zozketa

Beti Gazte sokatira taldeak egindako zozketak baditu saridunak: Begoña Alavari egokitu zaizkio Otxuneko bi gaztak eta Maider Goizuetarentzat izan da Liddurrenborda sagardotegian bi lagunentzako otordua. Ainhua Ubiria eta Maria Iantziren eskutik jaso zuten saria.



Vicente, Rekondo, Saralegi, Lopez eta Etxeberria finalistak. UTZITAKOA

KANPORAKETA

SAILKAPENA

1. Iker Vicente (Otsagi)	14.51
2. Jon Rekondo (Leitza)	15.46
3. Rubén Saralegi (Leitza)	16.08
4. Juan José López (Lezaun)	16.26
5. Joxean Etxeberria (Ziga)	17.08
6. Iban Resano (Dorao)	17.16
7. Oier Kañamares (Arostegi)	17.48
8. Eneko Saralegi (Leitza) *	18.38
9. Asier Pellejero (Areso)	18.55

* Azken biek maila galduko dute, baina Saralegik Julen Kañamaresen kontrako kanporaketa eska dezake

Jon Rekondok, Ruben Saralegik eta Lopezek ere erraz lortu zuten sailkatzea. Lehiarik handiena finaleko azken txartela ematen zuen bosgarren posturako izan zen. Joxean Etxeberriak Resanok baino zortzi segundo guttiago behar izan zituen.

Maila galtzea

Azkeneko bi sailkatuek, Eneko Saralegik eta Asier Pellejerok, maila galduko dute. Halere, azken aurreko sailkatuak, Eneko Saralegik, Julen Kañamaresen aurkako jaitsiera kanporaketa eskatzeko aukera izanen du. Izan ere, Kañamaresrek mediku-agiria aurkeztu zuen kanporaketako astean eta ezin izan zuen parte hartu.

Maratoi Erdia eta gaueko lanak izanen dituzte urrian Urdazubín

TTIPI-TTAPA URDAZUBI

Salbatore besten aitzineko igandean egiten zen Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketak aldaketak ditu aurtan. Hasteko data aldatu dute eta urriaren 20an egingen dute, igandean, 10:00etan abiatuta. Ez da aldaketa bakarra izanen: 16 kilometro eskas izatetik, maratoi erdia izatera pasa baita. 22 kilometro luze eta 1.200 metroko desnibela duen ibilbidea prestatu dute Urdazubiko Gazteriak eta Urdazubiko Udalak.

Hain ibilbide luzea egin nahi ez dutenek eta gauez lasterka ibiltzea nahiago dutenek ere izanen dute aukera. Bezperan, urriaren 19an, *Gaueko lanak* izeneko lasterketa antolatuta dute. Larunbatean 19:45ean abiatuta, 9 kilometro eta erdi luze eta 500 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute korrikalariek.

Izena emateko aukera zabalik da <https://play.sport-madness.com> webgunean.

Nafarroako aizkora txapelketak badu finalerako boskotea

Azaroaren 15ean Donezteben ariko dira Iker Vicente, Jon Rekondo, Ruben Saralegi, Juanjo Lopez eta Joxean Etxeberria

TTIPI-TTAPA

Nafarroako aizkora txapelketa nagusiko kanporaketa jokatu zuten irailaren 22an Uharteko Toki-Alai pilotalekuan. Iker Vicente erraz nagusitu zen eta berekin batera, Leitzako Jon Rekondo eta Ruben Saralegi, Lezaungo Juan Jose Lopez eta Zigako Joxean

Etxeberria izanen dira azaroaren 15ean Donezteben jokatu den finalean.

Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu behar izan zituzten kanporaketan, finaleko lanaren erdia. Gaur egungo txapelduna eta faborito nagusia, Otsagiko Iker Vicente, jaun eta jabe izan zen.



VIAS VERDES

Plazaolako Bide Berdeko Maratoia eta Maratoi Erdia

Irailaren 15ean jokatu zituzten Plazaolako Bide Berdeetako maratoia eta maratoi erdia. 42 kilometroko lasterketa Mikel Rodrigezek (02.26.32) eta Aitziber Martinek (03.08.49) irabazi zuten. 26 kilometroko lasterketan Roberto Trejo (1.27.30) eta Anabel Eleno (01.48.31) nagusitu ziren. 10 kilometroko proba ez zen egin, parte-hartzaile nahikorik ez zegoelako.

HITZALDIAK

BERA

Auzo-batzarrak

Auzoz auzo, egunak eta orduak
13. orrialdean ikusgai.

DONEZTEBE

Masa koipetsua nola galdu eta muskularra nola irabazi

Herrigunean, urriaren 4an,
19:30etan.

LEITZA

Autokontsumo energetikoa hizpide

Udaletxean, urriaren 7an,
19:00etan.

IKASTAROAK

LEITZA

'Musika sortu, nahasi eta zabaltzeko aplikazioak' ikastaroa

Liburutegian, urriaren 4an,
18:00etatik 20:00etara.

SUNBILLA

Argazkilaritza ikastaro teoriko-praktikoa

Urriaren 3an, 10ean, 17an eta
24an, 17:30etik 20:00etara.

TAILERRAK

LESAKA

'Zer eta nola jantzi hurrengo eguberrietan?' hitzaldi- tailerra

Harriondoan, urriaren 5ean,
17:00etan.

ELIZONDO

Elikadura osasuntsu, jasangarri eta arduratsua

Arizkunenean, urriaren 7an,
10ean, 14an, 17an, 21ean,
24an, 28an eta 31n. Astelehen
eta ortzegunetan, 17:00etatik
19:00etara.



ARTXIBOKOA

ZUBIETA Euskararen Eguna

Artisauak, herri-kirolak, kantu-bazkaria...
Urriaren 12an.

Musikoterapia tailerra

Arizkunenean, urriaren 8tik
abenduarien 17ra, asteartero,
20:00etatik 21:40era.

Autodefentsa tailerra

Arizkunenean, urriaren 19an,
10:00etan eta 16:00etan.

DONEZTEBE

Joskintza tailerra

Azkarretan, urriaren 14tik
aitzinerara, astelehenetan,
15:00etatik 16:30era.

ARESO

'Dakienak ez dakienari erakutsi' tailerra

Hondakin-kopurua murrizteko,
ohiturak aldatzea da helburua.
Udaletxean, urriaren 17an.

LEITZA

'Zahartzaroan ere osasuntsu' tailerra

Jubilatuaren egoitzan, urri
bukaeran, 16:30etik 18:30era.

KONTZERTUA

BERA

Erlauntza abesbatza

Elizan, urriaren 3an, 21:00etan.

Atsulai abesbatza

Elizan, urriaren 11n, 21:00etan.
Sarrera: 10 euro.

BERA

Mirua abesbatza

Kultur etxean, urriaren 19an,
19:30etan.

IKUSKIZUNAK

BERA

La Trócola zirkua

Kultur Etxean, urriaren 5ean,
17:00etan.

'1, 2, 3... Ubuntu' emanaldia

Ortiziralean, urriaren 11n,
18:00etan.

ELIZONDO

Gure Zirkua

Urriaren 4an eta 5ean. Sarrerak
salgai Fantxiken eta www.eventbrite.es atarian.

Errezitaldi poetiko-musikatua

Arizkunenean, urriaren 6an,
19:00etan.

LESAKA

'Nor da otsoaren beldur?' dantza-ikuskizuna

Harriondoan, urriaren 6an,
19:00etan. Sarrera: 5 euro.

IRURITA

Helduendako antzerkia

Gizarte Bilgunean, urriaren
13an, 19:00etan.

ZUGARRAMURDI

Korrontziren nafar loreak

Sorginen lezean, urriaren 5ean,
19:00etan.

LEITZA

Gure Zirkua

Urriaren 11n, 12an, 13an, 18an
eta 19an. Sarrerak salgai
Maimurren eta www.eventbrite.es atarian.

GOIZUETA

'Emakumeen lurra' dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia

Urriaren 25ean, 19:00etan.

LEHIAKETA

BERA

Aire zabaleko margo lehiaketa

Urriaren 20an, 09:00etan hasita.
Ondotik, sari-banaketa.

LESAKA

Argazki lehiaketa

Urriaren 29ra arte.

KIROLA

URDAZUBI

Kontrabandisten lasterketa

22 kilometro era 1.200 metroko
desnibela duen ibilbidea.
Urriaren 20an, 10:00etan.



RAKEL RICO

LEITZALDEA **Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Baserritarren topaketa, dokumentala eta solasaldia, erakusketa...
Leitzan, Goizuetan, Areson eta Aranon.

OSPAKIZUNAK

AURTIZ

Bertso-afaria

Urriaren 5ean.

LEITZA

Aurrera Eguna

Urriaren 5ean.

ZUBIETA

Euskararen Eguna

Urriaren 12an.

GOIZUETA

Umore Onaren atalen eguna

Urriaren 13an.

LEITZA

Baserritarren topaketa

Udaletxean, urriaren 15ean, 16:00etan.

Mikologialdia

Urriaren 10etik 13ra.

SARA

Usoaren astea

Urriaren 20tik 25era.

BESTAK

SARA

Besta ttikiak

Urriaren 5ean.

ANIZ

Herriko bestak

Urriaren 4tik 6ra.

GARTZAIN

Herriko bestak

Urriaren 11tik 14ra.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

'Ruandan zer berri? Galdeiezu bizikletei' erakusketa

Arizkunenean, urriaren 10a arte.

ARESO

Baratze kritikoa erakusketa

Urriaren 18tik 31ra.

ARANON

Baratze kritikoa erakusketa


Azaroaren 4tik 18ra.

Nire aukera

«Osasuntsu jateko ohitura haurtzarotik hartzea komeni da»

ALIX GEREKA AMUNARRIZ ITURENDAR GAZTEA

Donostian sortua den arren, haurtzaroko lehendabiziko urteak Zubietan pasatu zituen Alix Gereka: «sei urte nituela joan ginen Iturenera». Iturenen bizi izan zen nerabezaroko urteetan, eta horregatik, akaso, «iturendarra naizela erraten dut». Bi herrien gertutasuna barru-barrutik bizi izan du gazteak: «Zubietan ere etxean bezala sentitzen naiz». Gaur egun, Donamarian bizi bada ere, herriarekiko lotura ez du eteten utzi: «egunero joaten naiz eta etxekoei bisita egiteko aprobetxatzen dut». Batzuk tuperrak eske egiten dute buelta, Gereka, ordea, tuperra betetzeko arazorik ez du. Are gehiago, egunerokoan sukalde bazterrean egiten du lan:



«Iturengo eskolako jangelan sukaldari-lanetan aritzen naiz». Aurten hirugarren ikasturtea du hor, baina lehendik ere ongi ezagutzen zituen zartaginen heldulekuak: «sukaldaritza ikasketak egin ondotik jatetxe batean lan egin nuen». Batetik bertzer «aldaketa handia» sumatu zuela nabarmendu du: «batetik, kopurua ezagutzea eta menu

bera izatea abantaila da; baina, bertzetik, jatetxeko ohiturak eta gustuak aldakorrek dira eta jangelan ez dago aukerarako tarterik». Zentzu horretan, «denen gustua egitea ezinezkoa dela» onartuta, «guztien iritziak eta nahiak kontuan hartu eta ahalik eta hoberen egiten» saiatzen dela kontatu digu. Ahalik eta hoberen egitea zer den galdetuta iturendar sukaldariak ez luke zalantzarik izanen: «tokiko eta garaiko produktuak kontsumitzea». Bere aldetik, «ahal den guztia» inguruan erosten saiatzen da, «osasuntsu jateko ohitura haurtzarotik hartzea komeni delako». Menuetan ere, arreta berezia jarri izan dio orekari: «ikasketetan ikasitakoaz gain, bertze jangeletako eta aitzineko sukaldariak erabilitako menuak erabiliz nireak sortu nituen». Prestatu eta dastatu: «sukaldean bezainbertze gozatzen dut jaten». Hamaika zaletasun elikatu ditu plateren bidez: lagunarteko otorduak, parrandara atera aitzineko afariak eta munduko gastronomiari buruzko ezagutza, adibidez. Polonia, Mexiko, Menorca, Portugal eta Galizian ez ezik, Sahara eta Greziako kanpamenduetan ibilia da. Indian izan da udan. Hurrengoa nora ote?

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda salgai, bere lurra-
rekin. ☎661 12 15 40.

LESKA. pisua salgai, Bittiriako
plazan. 2.solairua, 90m², hiru gela
eta igogailuarekin. ☎619 30 80 60.

ORONÓZ. Etxea salgai. 4 logela, 3
bainugela, sukaldea eta egongela.
Dena berritua. 165.000 eurotan.
☎722 67 03 47.

ERRENTAN EMATEKO

LESKA. Lagun batentzat logela bat
errentan emateko, urte osorako.
☎678 85 50 56.

BERA. Irailetik aitzinera pisua erren-
tan emateko. 3 logela, bainugela,
egongela eta sukaldea ditu. Moblez-
tatur. Berogailuarekin. ☎616 38 28
49.

LESKA. Bi lagunendako aparta-
mentua errentan emateko. Bi loge-
la. Irailetik ekainera, astelehenetik
ortziralerara. ☎948 63 78 62 / 678 85
50 56.

IRUÑEA. Arrotxapean, igogailuetatik
hurbil, pisua errentan emateko. 3
logela, egongela, sukaldea eta ko-
muna. Mobleztatua, igogailu eta
berogailuarekin. ☎666 38 80 63.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Pertsona bat bizitza bila. Ez
du zertan mobleztatua izan behar.
☎687 60 96 84.

IRUÑEA. Eskualdeko bi lagun pisu
bila. Unibertsitate ondoan baldin
bada, hobe. ☎689 97 98 69.

DONEZTEBE. Pertsona bat pisu bila,
epe luzerako. ☎600 64 34 60.

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko norbaiten
bila dabilta. ☎637 06 00 73.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lur eremua
salgai. Errepidearen ondoan dago.
☎628 31 60 81.

LANA

ESKAINTZAK

ETXALAR Hotelean asteburuetan lan
egiteko zerbitzariak behar dituzte.
☎948 635000.

BERA. Errekalde ostatuan sukaldar-
ia eta zerbitzaria behar dituzte
egunero lanean aritzeko eta zerbi-
tzari bat asteburuetarako. ☎679 47
68 90.

BERA. Kafetegi batean zerbitzaria
behar dute. ☎608 43 64 54.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko dira

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ESKARIAK

BORTZIRIAK. Emakumezkoa etxeak
garbitzen aritzeko prest, goizetan.
☎688 71 59 58.

ELIZONDO INGURUAN adinduek
zaintzen, sukaldari lanetan, garbita-
sunean, fabrikako langile bezala...
aritzeko esperientzia duen emakume
arduratsua lan bila. ☎633 07 42 24.

Esperientziadun gizona lan bila, fa-
briketan, bentetan, eraikuntzan...lan
egiteko prest. ☎698 22 01 26.

ELIZONDO inguruan lan bila. Oso
arduratsua eta adinduek edota hau-
rrak zaintzeko, etxeko lanetarako,...
prest. Esperientzia lan arlo horietan.
Ordutegi malgua, interna moduan
aritzeko ere prest. ☎631 05 04 50.

MOTORRAK

SALGAI



Dacia Logan Laureate, 1.6 MPI
autoa salgai, 2005ekoa, motorra
gasolina, 133.000 kilometro, IAT-ITV
pasatu berria eta korrea, ur bonba,
olioa... aldatuak. Beti garajeon egon-
dakoa. Jabe bakarrek. ☎687 83
28 44 / 617 80 46 51.



Renault Kangoo salgai. 127.000
km, 60 zaldi. Diesela. 900 euro.
☎689 53 10 12.



Mercedes Vito furgoneta salgai,
2003koa. 112 cdi, 122 zaldi eta
274.000 KM. Motorra arras ona eta
ongi zaindua. 6.500 euro. ☎699 37
55 58.



Renault Kangoo salgai. 2009koa.
Egoera bikaina. Klimatizagailua,
portona, tindatutako kristalak, bola
eta gaineko barrak. 5.800 euro ne-
goziagarriak. ☎619 44 44 63.

EROSI

Land Rover Defenderra erosi nahi
dute, berdin du egoera: IAT gabe,
matxuratua, kolpearekin... ☎623 17
95 37.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Bi hilabeteko artzain txakurrak
opari. Arra eta emea. ☎620 13 57
21 / 628 68 28 73.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-
lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 170,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,90/8,50
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,30

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 55 €

Zerri gizona 1,465 €

Zerramak 0,740€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(irailaren 13tik 20ra bitarteko
prezioak)

SANTESTEBAN TAILERRAK

Estreinu gabea

KADJAR ZEN TCE 140 CV - 20.700 €
Led faroak, nabigatzailea... - Sus. finan. lotu.


Estreinu gabea

CAPTUR ZEN TCE 90 CV - 14.675 euro
Lanta betiz, Nab., apark. arrada. - Sus. finan. lotu.

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

SALGAI



Setter arrazako bi zakurkume salgai, maiatzaren 15ean sortuak. Gurasoak oilagor ehiztari onak. ☎625 13 77 44.

DENETARIK

DENAK

Erretiroagatik zonaldeko **banaketa-enpresa bat eskualdatzen** da. Bezero anitz dituen eta furgoneta barne. ☎675 58 84 70.

SORTZEAK

- **Unai Barandiaran**, Sarakoa, irailaren 4an.
- **Pietra Lopes de Paula Coracini**, Doneztebekoa, ekainaren 23an.
- **Iker Bertiz Berasain**, Doneztebekoa, uztailaren 30ean.
- **Inari Baleztena Zamorano**, Doneztebekoa, irailaren 4an.
- **Alain Bereau Maritxalar**, Lesakakoa, irailaren 11n.
- **Julen Urdanpilleta Zabala**, Goizuetakoa, irailaren 15ean.
- **Intza Mendizabal Maiz**, Arantzakoa, irailaren 24an.

EZKONTZAK

- **Sebastien Larzabal** eta **Elisabeth Lasserre**, irailaren 14an Saran.
- **Julian David Angel Chica** eta **Esthefany Guevara Giraldo**, uztailaren 26an Donezteben.
- **Borja Iturria Tarazona** eta **Oihana San Miguel Eskudero**, Arantzakoa eta Doneztebekoa, irailaren 7an Donezteben.
- **Aitzol Moneo Telletxea** eta **Naiara Olaia Urizar**, Tolosakoa, irailaren 14an Lesakan.

Sampi Aragón



Ford Kuga 1.5 ecoboost st line 150cv. Km0.
Prezioa: 25.400€. Finantzatutako prezioak



Ford ka+ ultimate 1.19 85cv. Km0.
Prezioa: 12.400€. Finantzatutako prezioak




Hyundai Kona 1.0 120cv. Km0.
Prezioa: 16.900€. Finantzatutako prezioak

DONEZTEBE | 948 450 354
administracion@arincar.com - www.arincar.com

OPARITZEKO

Hainbat **bideo oparitzeko, VHS formatuan**. Besteak beste: *Tasio, El padrino, Platoon, Casablanca, El guateque, Jamón jamón, Anie Hall, La flor de mi secreto, Gandhi, Azul, Nacido el 4 de julio, El piano...* ☎645 70 03 55.



Elgorriagako **Ander Bertiz Etxeberriak** urriaren 11n 2 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez bihurri! Muxu haundi bat etxekoan partetik.



Zubietako **Aiara Loiarde Ariztegiak** urtea bete du irailaren 18an. Musu haundi-haundi bat familiaren partetik.



Goizuetako **Urki Larralde Arozenak** 4 urte bete ditu irailaren 28an. Zorionak pottoko eta muxu pila bat familia guztiaren partetik!



Arantzako **Helene!** Ailegatu da urriaren 14a! Zuk, amasa sakon hartu, bete birikak eta... prestatu 10 kandeilei putz egiteko!!! Guk muxuak, besarkadak eta txaloak prestatuko ditugu eta!!! Egun ona pasaaaaa!!!!



Jare Maia Arotzena lesakarrak 8 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak!! Besarkada haundi bat familiaren partetik eta muxu pottolo bat Unaxen partetik.



Aunitz urtez **Usoa!** Gurekin ez egonagatik ez zenuen esperoko libratuko zinenik, ez? Ongi-ongi ospatu zure eguna, konpainia ederrean zaude eta!



Urdazubiko **Pablo Irazoki Olaizolak** urriaren 10ean urteak beteko ditu. Zorionak eta ongi pasatu eguna. 15 muxu haundi etxekoan partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia.
- (4) [ERRAN.EUSEN](http://erran.eus/en) bitartez.

URTEURRENA

Juan Mari ZALDAIN MAISTERRENA

Amalurren hil zen, 2016ko urriaren 1ean

III. urteurrena



Aunitz maite zaitugu!

Orain dela hiru urte gan zinen,
baina ez gure bihotzetik eta
gure oroitzapenetatik
Ez du inporta non garen,
beti eramango zaitugu gurekin
Hain positibo ta hain alaia
hain indartsu ta maitagarri,
zure omenez segitzen dugu
beti aurrera ta beti aintzin.

EMAZTEA ETA SEME-ALABAK

OROIGARRIA

Jon BARBERENA IBARRA

Berriro martxan jartzean
errekreoko sirena
Zital ailegatu zaigu
baden berririk latzena
Erreboteko eskolan
elkartu ginen aurrena
Eraikin berrian ere
klase, bertso ta poema

Nola ahantzi urteotan
eskaini diguzun dena?
Erreferentzia maixu-
maistra eta haurrena
Enpatia, maitasuna
ikasturtetan barrena
Hau da Jon utzi diguzun
irakasgairik onena

Ez adiorik, Jon. Maite zaitugu!

IRURITAKO ESKOLA

OROIGARRIA

JON BARBERENA IBARRA

Gurekin eta irakurle
zein entzuleekin
partekatu dituzun ideia,
hitz eta solasak
oroimenean iltzatuko ditugu.

Momentu gogor hauetan senide eta
lagunen saminarekin bat egiten dugu.

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA eta XORROXIN IRRATIA



OROIGARRIA

Jon BARBERENA IBARRA

Zure hitz goxoen xuxurla
Ez dugu ahantziko sekula.



URDAZUBI-ZUGARRAMURDI ETA BAZTANGO HERRIETAKO
ESKOLETAKO ZURE LANKIDEAK

OROIGARRIA

Behar baino lehenago
iritxi da udazkena,
haizeak txistukatzen du
zure izena...
Eta zu, lore bat
guregan egonen zarena.

Erratzuko lagunek



OROIGARRIA

"Zure agurraren saminak
ez digu eman zenigun
gozotasuna kenduko"

Zure lagunak, **Saskarrak**

Jon Barberena Ibarra



OROIGARRIA

Dizdira begietan
irria ahoan
izanen zaitugu gogoan

Altsasuko lagunak



OROIGARRIA

JON BARBERENA IBARRA

Ttikitatik lagun izan gara
ikastolako bidean,
bertsotan denek ikasi arren
zu maisu denen artean.
Errimak lotuz gabiltza orain
zu agurtu ezinean,
gogoan izanen zaitugu Jon
biltzen garen bakoitzean.
Ikastolako gelakideak



URTEURRENA



**Beñat
ETCHART VERDU**
Urdazubin, 2011ko urriaren 6an
VIII. urteurrena

Zu zara gure izarra,
zu zara gure indarra.
Beti gure bihotzean.
Maite zaitugu.

AITA, AMA, JOKIN
ETA FAMILIA GUZTIA

OROIGARRIA

**Marcos
OIZARZABAL IGOA**
Lesakan, 2019ko irailaren 21ean




Egun gogor hauetan
gure ondoan izan zareten
eta gure saminarekin bat egin
duzuen guzietan, mila esker.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Francisco
LARUMBE URRIZOLA**
Francisca Lacondeguren alarguna
GOIAN BEGO



Udazkenaren haizeak
dakarren negarra,
mila bihotz minbera
oinaze bakarra.
Betirako gure gogoan.

ZURE FAMILIA

HERIOTZAK

- **Jon Barberena Ibarra**, Elizondokoa, irailaren 12an, 40 urte zituela.
- **Lourdes Agirre Cerdan**, Berakoa, irailaren 14an, 65 urte zituela.
- **Nikolasa Santesteban Gorosterrazu**, Zubietakoa, irailaren 18an, 89 urte zituela.
- **Fermina Telletxea Legarreta**, Lesakakoa, irailaren 18an.
- **Juan Antonio Jorajuria Etxepeteleku**, Doneztebekoa, irailaren 19an, 76 urte zituela.
- **Visitacion Arozena Iribarren**, Urrozkoa, irailaren 20an, 88 urte zituela.
- **Martin Lournagarai Saldias**, Arraiozkoa, irailaren 21ean, 71 urte zituela.
- **Marcos Oiarzabal Igoa**, Lesakakoa, irailaren 21ean, 85 urte zituela.
- **Iñaki Azkarraga Jaimerena**, Berakoa, irailaren 22an, 67 urte zituela.
- **Juantxo Petirena Olaetxea**, Berakoa, irailaren 23an, 62 urte zituela.
- **M^a Esther Gartzia Etxenike**, Elizondokoa, irailaren 24an, 86 urte zituela.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDON** Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
**24 ORDU
365 EGUN** | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

**BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)**

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruongo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan,
(Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

PLAZAN BAZAN

ZIKULU-SAL TSA

Gure sorginak ezin du asperduraren aurkako bere edabe magikoa prestatu, osagai garrantzitsuena desagertu zaiolako. Edabe magikoaren formula sekretua denez, ezin da erran zein den osagai hori, baina uste dugu gozo-gozoa dela. Nolanahi ere, nor demontre izan ote da lapurra? Hemen ageri diren adiskideen artetik zeinek ebatsi ote dio sorginari osagaia? Ea asmatzen duzun.

ZENBAIT PISTA:

1. Begiak zabal-zabalik ditu
2. Belarriak ez ditu tente
3. Ez da iluna
4. Arrautzak erruten ditu
5. Zomorro txikiak jaten ditu
6. Bere espeziean bakarra da
7. Ez da narrastia

Lapurra da:

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



Lagundu beleari bere zuhaitzeraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tarteak dira.

SEKUENTZIA



Idatzi hemen esaera zaharra



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttapi Txartela

arekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

742

aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 sarrera
Juana Mari Saizar Telletxea | ARESO
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Sebastian Indakoetxea Mutuberria | ZUBIETA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Inaki Zelaieta Oteiza | LEGASA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Begoña Arretxea Ramirez | LESAKA
Buatxabal - Kamiseta bat
Paskual Rekalde Irigoien | AZPILKUETA
La Rhune - 2 sarrera
Barbara Lukanbio Gonzalez | ARANTZA
Wow Park - 2 sarrera
Jose Gabriel Carricaburu Zaldua | IRURITA
Ibaizabal - Liburu bat
Virginia Zabaleta Atxutegi | LEITZA
Ibaizabal - Liburu bat
Uxua Errandonea Aranibar | BERA

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera



ASTIZKO LEZEAK
www.mendukito.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA



Wow park
Votre Parc Aventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://wowpark.fr>

LI BU RU AK



Bizitza motor gainean
Lehenengo musuaren zain

elkar
www.elkar.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.katxiporreta.eus



www.onddotapunto.com